

SARRERA	5
ATARIKO TITULUA	6
I. kapitulua - Xedapen orokorrak	6
II. kapitulua - Nafarroako herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharrak	7
I. TITULUA - NAFARROAKO FORU ERAKUNDEAK.....	8
I. KAPITULUA - Erakundeak	8
II. KAPITULUA - Parlamentu edo Nafarroako Gorteak.....	8
III. KAPITULUA - Nafarroako Gobernua	10
IV. KAPITULUA - Nafarroako Gobernuko lehendakaria	11
V. KAPITULUA - Nafarroako Gobernuaren eta Parlamentuaren arteko harremanak	12
VI. KAPITULUA - Estatuarekiko harreman politikorako printzipioak eta bermeen araubidea	12
II. TITULUA - NAFARROAREN AHALMENAK ETA ESKUMENAK.....	14
I. KAPITULUA - Xedapen orokorrak.....	14
II. KAPITULUA - Ahalmen eta eskumenen zehaztapena	16
III. KAPITULUA - Aginte judiziala Nafarroan.....	23
IV. KAPITULUA - Estatuko Administrazioarekiko eta erkidego autonomoekiko harremanak.....	25
V. KAPITULUA - Harremanak Euskadiko Erkidegoarekin eta Frantziako Estatuan sarturik dauden Iparraldeko euskal lurraldeekin	26
VI. KAPITULUA - Harremanak Europarekin eta Nazioartearekin	26
III. TITULUA - ERREFORMA	28
XEDAPEN GEHIGARRIAK.....	28
XEDAPEN IRAGANKORRAK.....	29
AZKEN XEDAPENA	31

Abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.

Lege Organikoaren PROPOSAMENA, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa aldatzeari buruzkoa.

SARRERA

Nafarroak, Espainiako nazio-batasuna eratzeke prozesuarekin bat egin zuenean ere, bere Erresuma izaera gorde zuen, baita horri atxikirik bizi ere, beste herri batzuekin batean, Espainiaren ekinaldi handia.

XIX. mendea aurrera zihoala, Nafarroak Erresuma izaera galdu zuen, baina 1839ko urriaren 25eko Legeak haren Foruak berretsi zituen, konstituzio-batasuna deusetan ukatu gabe, eta xedatu ere zen ezen, Nafarroaren partaidetzaz, batasun horren interesak eskatzen zituen nahitaezko aldaketak sartuko zirela Foru horietan Nazioaren eta Monarkiaren Konstituzioaren interes orokorrekin bat eginez.

Xede hori zutela lotu ziren negoziazioei Nazioko Gobernu eta Nafarroako Diputazioa, eta hondarrean erdietsi zuten akordioan du sorburua Espainiako Monarkiaren Gorteek onetsi zuten 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduak.

Bere jatorrizko eskubide historikoetatik heldu ziren lege horien gerizapean, Nafarroak bere foru araubidea gorde zuen, baita ezari-ezarian garatuz joan ere, beharrezkoa izan denean Estatuko Administrazioarekin hitzartuz ahalmen eta eskumenen egokitzapena, elkarlaguntzarako komenigarritzat jotzen ziren bideak adostuz eta beti ere gizartearen beharrak begiratuz.

Aurrekari horiek zuzentasunez aintzat harturik, Konstituzioak, printzipio demokratiko, pluralista eta autonomikoen baiesle, gogoan dauka foru araubidearen existentzia eta, horrenbestez, bere lehen xedapen gehigarriko lehenbiziko lerroaldean Nafarroako eskubide historikoak babesten eta errespetatzen ditu eta, bere xedapen indargabetzailearen bigarren idazatian, berriz, 1839ko urriaren 25eko Legearen indarra bere horretan uzten. Horra, beraz, Konstituzioak indarra hartu berritan, Foru Diputazioarekin akordioa egin ondotik, 1979ko urtarrilaren 26ko Errege Dekretua aldarrikatzeko arrazoia, Nafarroako foru araubidea birrezarri eta hobetzeko bideari hasiera eman baitzion.

Hartara, Nafarroako Foru Araubidearen berezko ezaugarria da, Konstituzioak gerizatua, Estatuko Administrazioaren ordezkariak eta Nafarroako Foru Diputazioarenek Araubide horren berriztapena eta eguneratzea adostea, Gorte Nagusiek, espainiar herriaren subiranotasuna haragitzen duen Estatuko organo diren aldetik, erabaki aitzin. Bi ordezkartzen artean adostutako hobetzearen izaera eta norainokoa kontutan harturik, Konstituzioaren ikuspegitik beharrezkoa da Gobernuak, bere legegintza-ekimenez baliatuz, Lege Organikoaren proiektuaren maila eta izaera eman diezaien itunari, eta Gorte Nagusietara igor dezan, horiek, nahi badute, Lege Organikoaren gisa horretan sar dezaten Espainiako ordenamendu juridikoan.

SARRERA

Nafarroa, euskal herriaren atal, Espainiako Estatu eta Europako herrien artean bere izaera duen erkidegoa da, gaur egun lurrez Iruñeko, Lizarrako, Tuterako, Zangozako eta Erriberriko bortz Merindade historikoetan finkatzen den historia, gizarte eta kultur ondarearen gordetzaileria.

1512ko konkistaren ondotik, Nafarroak Gazteluko erresumarekin bat egin zuen, «*quedando salvos, e ilesos todos sus Fueros, Leyes y costumbres para gobernarse por ellos: de manera, que el haverla incorporado no fué por modo de supresión, sino por el de unión principal, y assi cada Reino retuvo su naturaleza antigua en Leyes, Territorio y gobierno*» (sic) (IB. I. liburua. VIII. titulua. XXXIII. legea); horra gure Zuzenbide Historikoaren zimendu juridikoa, 1839ko urriaren 25eko Legeak eta indarra duen Espainiako Konstituzioak berretsi, babestu eta begiratu dutena.

Nafarroak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea du, autodeterminazio eskubidearekin bat. Hura, Nazio Batuen 1945eko Kartak aldarrikatu zuen eta, berretsi, berriz, Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Itunean, Ekonomia, Gizarte eta Kulturako Eskubideen Nazioarteko Itunean eta Helsinkiko 1975eko Azken Aktan, bertzeak bertze.

Gaur egun Espainiako Estatuaren atal denez, Nafarroak bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidearen erabilpena gauzatzeko, Estatu horrek errespetatuko du Nafarroako herritarrek beren etorkizunaz erabakitzeko galdekatuak izatera duten eskubidea, eta, berriz, alderdi guztiek errespetatuko dute hartzen duten erabakia, izan gaur egungo estatus-quo mantentzea Espainiako Estatuaren atal, izan gainerako euskal herriekin bertzelako lurralde batasuna eratzea edo izan estatu berekia duen entitatea bere gisara eratzea.

Printzipio hauetan oinarriturik, euskal nazioaren parte dela ahanzi gabe, haren iturburua baita, eta bereziki ahanzi gabe Nafarroa Beherarekin dituen loturak, Nafarroak, aitorturik dituen eskubide historikoetan oinarrituta, berresten du Estatu Politiko hau, Espainiako Estatuarekiko harreman eredu berria izan dadin.

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Nafarroa Foru Komunitate bat da, araubide, autonomia eta erakunde berekiak dituena, banaezina, Espainiako Nazioaren barnean sartua eta solidarioa haren herri guztiekin.
2. artikulua. 1. Botere publikoek Nafarroako Foru Komunitatearen jatorrizko eskubide historikoak errespetatu eta babestuko dituzte, 1839ko urriaren 25eko Legeari, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduari eta xedapen osagarriei, Lege Organiko honi eta Konstituzioari jarraikiz, haren lehen xedapen gehigarriko lehenbiziko lerroaldean aurrikusitakoaren ariora.
 2. Aitzineko idazatian xedatutakoak ez ditu ukituko Estatuaren erakunde, ahalmen eta eskumenak, konstituzio-batasunari badatxezkio.
3. artikulua. Nafarroako Foru Araubidearen izaerarekin bat etorritik, haren Hobetzeak, Lege Organiko honetan ezartzen den gisan, helburu hauek ditu:
 1. Konstituzio-batasunarekin bateragarriak diren ahalmen eta eskumen guztiak Nafarroako Foru Araubidearen barnean sartzea.
 2. Nafarroako Foru Erakundeak demokratikoki antolatzea.
 3. Nafarroako Foru Araubidearen ahalmen eta eskumen bereki guztiak bermatzea.
4. artikulua. Lege hau aldarrikatzen den unean Iruña, Lizarra, Tuter, Zangoza eta Erriberriko merinerri historikoen barnean dauden udalerriek osatzen dute Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea.
5. artikulua. 1. Lege Organiko honi doakionean, Estatuko lege orokorrei jarraikiz Nafarroako edozein udalerritan herritartasun administratiboa duten espainiarrek dute nafartasun politikoa.
 2. Atzerrian bizi eta beren azken herritartasun administratiboa Nafarroan izan duten espainiarrek, Nafarroan bizi diren egoiliarrek dituzten eskubide politiko berberak izanen dituzte. Halaber, haien ondokoek ere eskubide horiek izanen dituzte, espainiar gisa izenemanda badaude eta horrela eskatzen badute Estatuko legeriak zehazten duen gisan.
 3. Foru zuzenbide zibilaren arabera nafartasuna eskuratu, gorde, galdu eta berreskuratzeko Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduma edo Nafarroako Foru Berrian ezarritakoari jarraikiko zaio.
6. artikulua. Nafarrekin gainerako espainiarrek dituzten oinarritzko eskubide, askatasun eta betebeharrak berberak dituzte.
7. artikulua. 1. Nafarroako armarrria, hondo gorriaren gainean paraturiko urrezko katez da, kate-mailaz osaturiko zortzi besoek elkargunean esmeralda bat dutela eta orenen gainean, berriz, Errege koroa, Nafarroako antzinako Erresumaren sinboloa.
 2. Nafarroako bandera gorria da, erdian armarrria duela.
8. artikulua. Nafarroako hiriburua Iruñeko hiria da.

I. kapitulua

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Nafarroa, elkartasun askean oinarriturik Lege honetan harreman politikorako ezartzen den araubide bereziaren bitartez, Foru Komunitate gisa eratzen da, autogobernu araubide eta erakunde berekiak dituena, Espainiako Estatuaren barnean sartua eta solidarioa haren herri guztiekin.
2. artikulua. Botere publikoek Nafarroako Foru Komunitatearen jatorrizko eskubide historikoak errespetatu eta babestuko dituzte, 1839ko urriaren 25eko Legeari, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduari eta xedapen osagarriei, Lege Organiko honi eta Konstituzioari jarraikiz, haren lehen xedapen gehigarriko lehenbiziko lerroaldean aurrikusitakoaren ariora.
3. artikulua. Nafarroako Foru Araubidearen izaerarekin bat etorritik, haren Hobetzeak, Lege Organiko honetan ezartzen den gisan, helburu hauek ditu:
 1. **Berezko dituen** ahalmen eta eskumen guztiak **bermatzea** eta Nafarroako Foru Araubidearen barnean sartzea.
 2. Nafarroako Foru Erakundeak demokratikoki antolatzea.
4. artikulua. Lege hau aldarrikatzen den unean Iruñeko, Lizarrako, Tuterako, Zangozako eta Erriberriko merindade historikoen barnean dauden udalerriek osatzen dute Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea.
5. artikulua. 1. Lege Organiko honetaz den bezainbatean, Estatuko lege orokorrei jarraikiz Nafarroako edozein udalerritan herritartasun administratiboa duten espainiarrek dute nafartasun politikoa.
 2. Atzerrian bizi eta beren azken herritartasun administratiboa Nafarroan izan duten espainiarrek, Nafarroan bizi diren egoiliarrek dituzten eskubide politiko berberak izanen dituzte. Halaber, haien ondokoek ere eskubide horiek izanen dituzte, espainiar gisa izen emanda badaude eta horrela eskatzen badute Estatuko legeriak zehazten duen gisan.
 3. Foru zuzenbide zibilaren arabera nafartasuna eskuratu, gorde, galdu eta berreskuratzeko Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduma edo Nafarroako Foru Berrian ezarritakoari jarraikiko zaio.
6. artikulua. 1. Nafarroako armarrria, hondo gorriaren gainean paraturiko urrezko katez da, kate-mailaz osaturiko zortzi besoek elkargunean esmeralda bat dutela eta orenen gainean, berriz, Errege koroa, Nafarroako antzinako Erresumaren sinboloa.
 2. Nafarroako bandera gorria da, erdian armarrria duela.
7. artikulua. Nafarroako hiriburua Iruñeko hiria da.

9. artikulua. 1. Gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala.
2. Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan.
- Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta Estatuko legeria orokorra abiapuntzat harturik, hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du.

8. artikulua. 1. Gaztelania eta euskara dira Nafarroako hizkuntza berezkoak dira eta biak izanen dira Nafarroako hizkuntza ofizial. Nafarroako biztanle guztiek dute bi hizkuntzak erabiltzeko eta jakiteko eskubidea.
2. Nafarroako erakundeek, aniztasun soziolinguistikoa kontuan hartuz, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, bien ofizialtasuna arautuz, eta haien ezagutza segurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituzte.
3. Inor ere ezin izanen da hizkuntza dela-eta diskriminatu. Beraz, nafar herritar guztien hizkuntza eskubideak begiratuko dira.
4. Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia da erakunde aholku emaile ofiziala.
5. Euskara bertze euskal lurralde eta giza talde batzuen ondare den aldetik, eta erakunde akademiko eta kulturalen arteko harreman eta loturez gain, Nafarroako Foru Komunitateak lurralde eta giza talde horiekin kultur harremanak izateko akordio edo hitzarmenak izenpetuko ditu, euskara zaindu eta sustatu beharrez.
6. Espainiako Estatuak, hizkuntza anitzeko estatua dela aintzat hartuz, euskara errespetatu, sustatu eta babestuko du erakunde-eremu guztietan, baita Europar Batasunean eta nazioartean ere.

II. kapitulua

Nafarroako herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharrak

9. artikulua. 1. Nafarroako herritarrek bere dituzte Europako Konstituzioan, Espainiako Konstituzioan eta Lege honetan berean ezarritako oinarrizko eskubide eta betebeharrak, baita nazioarteko itun eta hitzarmenetan eta bereziki Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean ezarritakoak ere.
2. Nafarroako Foru Komunitateko aginte publikoek, beren eskumen eremuan
- Oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia bermatu eta zainduko dute.
 - Bideak jarriko dituzte herritar guztiek parte har dezaten Nafarroako politika, ekonomia, kultura eta gizarte bizian, eta zainduko dute gizonezkoek eta emakumeek esparru guztietan benetako berdintasuna izatea.
 - Neurriak hartuko dituzte, gizabanakoen eta giza taldeen askatasuna, segurtasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izateko baldintzak sustatzera eta horietarako oztupoak kentzera bideratuak.
 - Norberaren nortasuna garatzera, ongizatea handitzera eta bizi baldintzak eta lan baldintzak hobetzera zuzendutako politika bultzatuko dute.
 - Neurriak hartuko dituzte, enplegu betea, ekonomiaren egonkortasuna eta ekonomiaren garapen zuzen eta iraunkorra sustatzera zuzenduak.
3. Orobat, Nafarroari dagokio Nafarroako Foru Komunitateko Herriaren Defendatzailearen erakundea sortzea eta Foru Parlamentuaren legearen bidez arautzea, izan dadin goi mailako mandataria, Parlamentuak hautatua eta berari atxikia, nafar herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharrak defendatzeko eta haien babes maila hobetzeko, administrazio publikoen jarduerak ikuskatuz eta Parlamentuari berari lan horren berri emanez.

I. TITULUA

NAFARROAKO FORU ERAKUNDEAK

I. KAPITULUA

Erakundeak

10. artikulua. Nafarroako foru erakundeak hauek dira:
- Parlamentua edo Nafarroako Gorteak.
 - Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioa.
 - Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioako lehendakaria.

II. KAPITULUA

Parlamentu edo Nafarroako Gorteak

11. artikulua. Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzeko du, legegintzarako ahalmena erabiltzen, Nafarroako aurrekontuak eta kontuak onesten, Foru Diputazioaren jardura bultzatzen eta kontrolatzen, eta ordenamendu juridikoak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak betetzen.
12. artikulua. Parlamentuaren eskumena da Nafarroari Foru Komunitate den aldetik legozkiokeen senadoreak hautatzea.
13. artikulua. 1. Nafarroako Parlamentua ukiezina da.
2. Foru parlamentarietarako, beren agintealdia bukatu eta gero ere, ukiezintasuna izanen dute, parlamentu-egintzetan agertutako iritziak eta beren karguan aritzerakoan emandako botuak direla bide.
14. artikulua. 1. Begi-bistako delitua ez bada, foru parlamentariak ezin izanen dira atzeman ez atxilotu beren agintealdian Nafarroako lurraldearen barnean egindako delitu egintzen kariaz, eta haiek erruduntzeaz, espetxeratzeaz, auziperatzeaz eta epaitzeaz, erabakia Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiarri dagokio beti ere.
2. Nafarroako lurraldetik kanpora, erantzukizun penala Auzitegi Goreneko behar den sailean exijituko da, gisa berean exijitu ere.
15. artikulua. 1. Parlamentua bozketa unibertsal, libre, berdinean, zuzen eta isilpekoaren bidez hautatuko da, lau urtetarako.
2. Parlamentuko kideen kopurua ez da berrogei baino gutxiago ez eta hirurogei baino gehiago izanen.
- Foru lege batek finkatuko du parlamentarien kopuru zehatza eta haien hautapena arautuko, ordezkaritza proportzionalaren irizpideei jaramon eginez, baita haien hautaezintasun eta bateraezintasun kasuak ere, hori guztia hauteskundeetarako legeria orokorrari jarraikiz.

I. TITULUA

NAFARROAKO FORU ERAKUNDEAK

I. KAPITULUA

Erakundeak

10. artikulua. Nafarroako foru erakundeak hauek dira:
- Parlamentua edo Nafarroako Gorteak.
 - Nafarroako Gobernu.**
 - Nafarroako Gobernuko lehendakaria.**

II. KAPITULUA

Parlamentu edo Nafarroako Gorteak

11. artikulua. Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzeko du, legegintzarako ahalmena erabiltzen, Nafarroako aurrekontuak eta kontuak onesten, **Nafarroako Gobernuaren** jardura bultzatzen eta kontrolatzen, eta ordenamendu juridikoak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak betetzen.
12. artikulua. **Halaberean**, Parlamentuaren eskumena da:
- Nafarroako Foru Komunitatea ordezkatzeko duten senadoreak hautatzea, Foru Parlamentuaren beraren lege batean adieraziko den bidea erabiliz horretarako; bide horrek ordezkaritza proportzionala segurtatuko du.**
 - Estatuko Gobernuari eskatzea lege proiektu bat onar dezala edo Kongresuko Mahaiari lege proposamen bat igortzea, eta Ganbera horren aitzinean eskuordetzea hura defendatzeko lana izanen duten foru parlamentariak.**
 - Konstituzio-kontrakotasunaren errekurtsoa paratzea.**
13. artikulua. 1. Nafarroako Parlamentua ukiezina da.
2. Foru parlamentarietarako, beren agintealdia bukatu eta gero ere, ukiezintasuna izanen dute, parlamentu-egintzetan agertutako iritziak eta beren karguan aritzerakoan emandako botoak direla bide.
14. artikulua. 1. Begi-bistako delitua ez bada, foru parlamentariak ezin izanen dira atzeman ez atxilotu beren agintealdian Nafarroako lurraldearen barnean egindako delitu egintzen kariaz, eta haiek erruduntzeaz, espetxeratzeaz, auziperatzeaz eta epaitzeaz, erabakia Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiarri dagokio betiere.
2. Nafarroako lurraldetik kanpora, erantzukizun penala Auzitegi Goreneko behar den sailean exijituko da, gisa berean exijitu ere.
15. artikulua. 1. Parlamentua bozketa unibertsal, libre, berdinean, zuzen eta isilpekoaren bidez hautatuko da, lau urterako.
2. Parlamentuko kideen kopurua ez da berrogei baino gutxiago ez eta hirurogei baino gehiago izanen. Foru lege batek finkatuko du parlamentarien kopuru zehatza eta haien hautapena arautuko, ordezkaritza proportzionalaren irizpideei jaramon eginez, baita haien hautaezintasun eta bateraezintasun kasuak ere, hori guztia hauteskundeetarako legeria orokorrari jarraikiz.
3. Parlamentarien hautapena ordezkaritza proportzionalaren irizpideei jarraikiz egiten da **eta hauteskunde-barrutiak merindade historikoak izanik, ondorio horietarako Iruñeko Merindadeak bi hauteskunde-barruti osatuko badu ere: Iruñerria eta gainerakoa.**

16. artikulua. 1. Parlamentuak bere Erregelamendua ezarri eta aurrekontuak onetsiko ditu.
2. Erregelamendua onetsi eta berritzeak Parlamentuko kideen erabateko gehiengoaren aldeko botua beharko du, proiektu osoaren gaineko azken bozketa batean.
17. artikulua. 1. Parlamentuaren jarduna osoko bilkuretan eta batzordeetan gauzatuko da eta bere kideen artetik lehendakari bat, Mahai bat eta Batzorde Iraunkor bat hautatuko ditu.
2. Parlamentuak, bilkura arruntak egiteko, urtean bi batzarraldi izanen ditu: lehena irailetik abendura eta bigarrena otsailetik ekainera, eta osoko bilkuren kopurua gehienez ere hamasei izanen da.
3. Bilkura berezietan ere batzar daiteke. Horietarako deia bere lehendakariak egin beharko du, nolana ere eguneko gai-zerrenda zehaztuz eta horrela eskatzen badute Batzorde Iraunkorrak, parlamentarien bostenak edota Erregelamenduak erabakitzen duen parlamentari-taldeen kopuruak, baita **Foru Diputazioak** ere.
4. Ganbarako Erregelamenduak lehenbiziko idatzian adierazitako organoen hautaketa, osaketa, eskurantzak eta jardunbidea arautuko ditu.
18. artikulua. 1. Diputazioari dagokio Nafarroako Aurrekontuak egitea eta kontuak prestatzea Parlamentuan aurkezteko, horrek eztabaidatu, emendakinak egin eta, nahi badu, onetsi ditzan, hori guztia foru legeek zehazten dutenari jarraikiz. Halaberean Diputazioak bere jardura ekonomikoaren berri emanen dio Nafarroako Parlamentuari, hura kontrolatu ahal izateko.
2. Kontuen Ganbara ariko da Nafarroako Parlamentuaren menpeko organo. Harenak izanen dira bere eratze-legean eta berau aldarazi edo garatzen dutenetan aurrikusten diren eskumenak.
- Parlamentuak Foru Komunitatearen eta haren menpeko sektore publikoaren kontuen berri izan eta horiek onetsi aurretik, Kontuen Ganbarak haien azterketa eta zentsura egingen ditu, eta Nafarroako Parlamentuarendako irizpena luzatuko.
- Halaber, Nafarroako toki erakundearen kontuen eta kudeaketa ekonomikoaren berri emanen du, toki administrazioari buruzko foru lege batek xedatzen duenari jarraikiz.
3. Aitzineko idazietan xedatutakoa deusetan ukatu gabe, Kontuen Ganbarak bere jarduketak igorriko dizkio Kontu Auzitegiari. Kontu Auzitegiaren irizpena, bere espedientea eta guzti, Nafarroako Parlamentuari bidaliko zaio, honek, nahi badu, neurri bidezkoak har ditzan.
4. Kontu Auzitegiari dagokio, Nafarroan diru edo efektu publikoen erabilpena beren bizkar izan eta, egitez edo ez-egitez, legearen aurka jokatzearen ondorioz haien urritzea dakartenek kontabilitate aldetik izanen luketen erantzukizuna epaitzea.
- Bere eginkizun fiskalizatzailean aritzean, Kontuen Ganbara kontabilitate aldetik inon erantzukizun zantzurik bada la ohartzuz gero, behar diren jarduketak Kontu Auzitegiaren esku utziko ditu.
19. artikulua. 1. Legegintza-ekimena ondoko hauei dagokie:
- a) Foru Diputazioari, Parlamentuari lege-proiektuak aurkeztuz.
- b) Foru parlamentariari, Ganbarako Erregelamenduak erabakitzen duen gisan.

16. artikulua. 1. Parlamentuak bere Erregelamendua ezarri eta aurrekontuak onetsiko ditu.
2. Erregelamendua onetsi eta berritzeak Parlamentuko kideen erabateko gehiengoaren aldeko botoa beharko du, proiektu osoaren gaineko azken bozketa batean.
17. artikulua. 1. Parlamentuaren jarduna osoko bilkuretan eta batzordeetan gauzatuko da eta bere kideen artetik lehendakari bat, Mahai bat eta Batzorde Iraunkor bat hautatuko ditu.
2. **Batzarraldi arruntek iraunen dute Ganberaren Erregelamenduak horretarako ezartzen duen denbora.**
3. Bilkura berezietan ere batzar daiteke. Horietarako deia bere lehendakariak egin beharko du, nolana ere eguneko gai-zerrenda zehaztuz eta horrela eskatzen badute Batzorde Iraunkorrak, parlamentarien bortzenak edota Erregelamenduak erabakitzen duen parlamentari-taldeen kopuruak, baita **Nafarroako Gobernuak** ere.
4. Ganberako Erregelamenduak lehenbiziko idatz-zatian adierazitako organoen hautaketa, osaketa, eskurantzak eta jardunbidea arautuko ditu.
18. artikulua. 1. **Foru Gobernuari** dagokio Nafarroako Aurrekontu Orokorrek egitea eta kontuak prestatzea Parlamentuan aurkezteko, horrek eztabaidatu, zuzenketak egin eta, nahi badu, onetsi ditzan, hori guztia foru legeek zehazten dutenari jarraikiz. Halaberean **Gobernuak** bere jardura ekonomikoaren berri emanen dio Nafarroako Parlamentuari, hura kontrolatu ahal izateko.
2. Comptos Ganbera ariko da Nafarroako Parlamentuaren menpeko organo. Harenak izanen dira bere eratze-legean eta berau aldarazi edo garatzen dutenetan aurreikusten diren eskumenak.
- Parlamentuak Foru Komunitatearen eta haren menpeko sektore publikoaren kontuen berri izan eta horiek onetsi aitzin, Comptos Ganberak haien azterketa eta zentsura egingen ditu, eta Nafarroako Parlamentuarendako irizpena luzatuko.
- Halaber, Nafarroako toki erakundearen kontuen eta kudeaketa ekonomikoaren berri emanen du, toki administrazioari buruzko foru lege batek xedatzen duenari jarraikiz.
19. artikulua. 1. Legegintza-ekimena ondoko hauei dagokie:
- a) **Nafarroako Gobernuari**, lege proiektuak aurkeztuz Parlamentuari.
- b) Foru parlamentariari, Ganberako Erregelamenduak erabakitzen duen gisan.

- c) Udalei, beraiei dagokien merinerriko udalerrri kopurua-
ren herena eta bertako zuzenbidezko biztanleriaren ehu-
neko berrogeita hamar ordezkatzan dutenean. Ekimen
horren erabilera foru lege bidez arautuko da.
2. Foru lege batek ezarriko du herriaren legegintza-ekimena,
behar den lege organikoak xedatzen duenari jarraikiz.
3. 20.2 artikulua aipatzen dituen foru legeak beharko dituz-
ten gaitan, legegintza-ekimena Foru Diputazioari eta par-
lamentariei baizik ez dagokie.
20. artikulua. 1. Nafarroako Parlamentuaren arauak foru lege
hartuko dute izena eta gehiengo soilez onetsiko dira.
2. Lege Organiko honetan bereziki aipatutako foru legeek
eta administrazio eta lurralde antolamenduaz Ganbarako
Erregelamenduak erabakitzen dituen bestelako guztiak
ere, erabateko gehiengo beharko dute onetsiak izateko,
proiektu osoaren gaineko azken bozketa batean.
21. artikulua. 1. Parlamentuak Foru Diputazioari eskuordetzen
ahal dio legegintza-ekimenaren erabilpena. Eskuordetze hori
ez da bidezkoa izanen, aurreko artikuluari jarraikiz, foru
legeak onesteko erabateko gehiengo exijitzen den kasuetan.
2. Eskuordetzeari buruzko legeek, legegintzarako ahalmen
eskuordetua erabiltzean Diputazioak begiratu beharreko
oinarriak finkatuko dituzte. Foru legeak lege-testuak bate-
giteko baimena ere eman diezaioke Diputazioari, bategi-
tearen norainokoa eta hartan jarraitu beharreko irizpideak
ezarri.
3. Legegintzarako eskuordetzea espreski eman beharko zaio
Diputazioari, gai jakin baterako eta erabilpen epea finka-
tuz.
22. artikulua. Foru legeak Diputazioako lehendakariak
aldarrikatu ditu Erregeren izenean eta berak xedatuko du Parla-
mentuak onetsi ondoko hamabost egunetan argitara daitezen
“Nafarroako Aldizkari Ofizialean”, baita “Estatuko Aldizkari
Ofizialean” ere. Indarra hartzei doakionean, “Nafarroako
Aldizkari Ofizialean” argitaratzen direneko data izanen da
baliozkoa.

III. KAPITULUA

Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioa

23. artikulua. 1. Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioari
ondoko hauek dagozkio:
- a) Betearazteko eginkizuna, erregelamenduzkoa eta admi-
nistratziozkoa barnean direla.
- b) Ahalmen ikuskatzailea gai administratibo eta ekonomi-
ko-administratiboetan, judizialaren aitzin.
- c) Lege Organiko honek esleitzen dizkion eskumenak eta
dagozkiokeenak bestelako legeen ariora.
2. Diputazioak ematen dituen xedapen orokorrak Foru Dek-
retu izanen dira, eta Foru Agindu, berriz, haren kideek
ematen dituztenak.
24. artikulua. Diputazioak Nafarroako foru araubidearen osota-
sunaren defentsa bereziki zainduko du, eta Parlamentuari
eman behar dio gerta litekeen edozein kontraforuren berri.
25. artikulua. Foru lege batek arautuko du Diputazioaren osake-
ta, eskurantzak, araubide juridikoa eta jardunbidea, hala nola
haren kideen estatutua.
26. artikulua. Foru Diputazioak Parlamentuaren alde aurreko
baimena beharko du:
- a) Zor publikoa jaulki, abal eta bermeak eratu eta kredi-
tuak egiteko.

- c) Udalei, beraiei dagokien merinaldeko udalerrri kopurua-
ren herena eta bertako zuzenbidezko biztanleriaren ehu-
neko berrogeita hamar ordezkatzan dutenean. Ekimen
horren erabilera foru lege bidez arautuko da.

2. Foru lege batek ezarriko du herriaren legegintza-ekime-
na.
3. **Ondoko** artikulua aipatzen dituen foru legeak beharko
dituzten gaitan, legegintza-ekimena **Gobernuari** eta par-
lamentariei baizik ez dagokie.
20. artikulua. 1. Nafarroako Parlamentuaren arauak foru lege
hartuko dute izena eta gehiengo soilez onetsiko dira.
2. Lege Organiko honetan bereziki aipatzen diren foru
legeek erabateko gehiengo beharko dute onetsiak izateko,
proiektu osoaren gaineko azken bozketa batean.
21. **artikulua.** 1. Parlamentuak **Foru Gobernu**a eskuordetzen
ahal du legegintza-ekimena erabiltzeko. Eskuordetze hori ez
da bidezkoa izanen, aitzineko artikuluari jarraikiz, foru
legeak onesteko erabateko gehiengo galdatzen den kasuetan.
2. Eskuordetzeari buruzko legeek, legegintzarako ahalmen
eskuordetua erabiltzean **Gobernuak** begiratu beharreko
oinarriak finkatuko dituzte. Foru legeak lege-testuak bate-
giteko baimena ere eman diezaioke **Gobernuari**, bategitea-
ren norainokoa eta hartan jarraitu beharreko irizpideak
ezarri.
3. Legegintzarako eskuordetzea espresuki eman beharko zaio
Gobernuari, gai jakin baterako eta erabilpen epea finka-
tuz.
22. artikulua. Foru legeak Nafarroako Gobernuko lehendakariak
aldarrikatuko ditu eta berak xedatuko du Parlamentuak onetsi
ondoko hamabost egunetan argitara daitezen “Nafarroa-
ko Aldizkari Ofizialean”

III. KAPITULUA

Nafarroako Gobernu

23. **artikulua.** 1. **Nafarroako Gobernuari** ondoko hauek dagoz-
kio:
- a) Betearazteko eginkizuna, erregelamenduzkoa eta admi-
nistratziozkoa barne.
- b) Ahalmen ikuskatzailea gai administratibo eta ekonomi-
ko-administratiboetan, judizialaren aitzin.
- c) Lege Organiko honek esleitzen dizkion eskumenak eta
dagozkiokeenak bertzelako legeen ariora.
2. **Nafarroako Gobernuak** ematen dituen xedapen orokorrak
Foru Dekretu izanen dira, eta Foru Agindu, berriz, gobe-
nukideek ematen dituztenak.
24. **artikulua.** **Gobernuak Nafarroako** foru araubidearen osota-
sunaren defentsa bereziki zainduko du, eta Parlamentuari
eman beharko dio gerta litekeen edozein kontraforuren berri.
25. **artikulua.** Foru lege batek arautuko du **Gobernuaren** osake-
ta, eskurantzak, araubide juridikoa eta funtzionamendua,
hala nola haren kideen estatutua.
26. artikulua. Foru **Gobernuak** Parlamentuaren alde aurreko
baimena beharko du:
- a) Zor publikoa jaulki, abal eta bermeak eratu eta kredi-
tuak egiteko.

- b) Estatuarekin eta komunitate autonomoekin hitzarmenak gauzatzeko.
 - c) Lege Organiko honetako 39.2. artikulua aipatzen duen ekimena erabiltzeko.
27. artikulua. Lehendakariaren eta Foru Diputazioaren gainerako kideen erantzukizun kriminala, Auzitegi Goreneko behar den sailean exijituko da behar izanez gero.
28. artikulua. 1. Foru Diputazioak kargua utziko du Parlamenturako hauteskundeak egindakoan, horrek bere konfiantza ukatu edo zentsura-mozio bat onesten duenean, edota lehendakariaren dimisioagatik edo haren heriotzagatik.
2. Kargua uzten duen Diputazioak jardunean jarraituko du, Diputazio berria karguaz jabetu artean.

IV. KAPITULUA

Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioako lehendakaria

29. artikulua. 1. Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioako lehendakaria Parlamentuak hautatuko du eta Erregek izendatuko.
2. Parlamentuko lehendakariak Foru Diputazioako lehendakari izateko hautagai bat proposatuko du, Parlamentuan ordezkari izateko duten alderdi edo talde politikoek izendatutako bozeramaleekin alde aurretik kontsulta eginda.
3. Hautagaiak bere programa aurkeztuko dio Parlamentuari. Hautatua izateko, hautagaiak, lehenbiziko bozketan erabateko gehiengoa lortu beharko du. Lortu ezean, beste bozketa bati ekinen zaio hogeita lau orduren buruan eta hautagaiari konfiantza emantzat hartuko da bigarren bozketan gehiengo soila lortzen bada. Gehiengo hori ere lortzen ez bada, hautagaia arbuiautzat hartu eta hurrenez hurreneko proposamenak izapidatuko dira arestian aurreikusitako era berean.
4. Lehenbiziko bozketatik 30 egun natural iragan eta hautagairik bat ere hautatu ez bada, Parlamentua deseginen da eta berehala hauteskundeak deituko dira. Parlamentu berriaren agintaldiak, hala ere, lehengoaren agintaldia bukatuko zen arte iraunen du.
30. artikulua. 1. Diputazioako lehendakariak Foru Komunitatearen ordezkari izateko goren du, baita Estatuaren ordezkari izateko ere Nafarroan.
2. Diputazioako lehendakariak foru diputatuak hautatu eta kargugabetzen ditu, Diputazioaren ekintza zuzentzen du eta foru lege batean zehaztuko diren gainerako eginkizunak betetzen ditu.
3. Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioako lehendakariak, bera erantzule bakar dela eta aurrez Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioak hala deliberatu duela, zilegi izanen du Parlamentua desegiteko erabakia hartu eta hauteskunde deialdia egitea, legegintzaldiaren berezko amaiera baino lehen.
- Lehendakariak ez du zilegi izanen Parlamentua desegiteko erabakia hartzea lehenbiziko bilkuraldian, eta ez legegintzaldia bukatzeko urtebete baino gutxiago gelditzen bada, eta ez zentsura mozio bat tramitatzen ari denean, eta ez Estatu hauteskunde prozesu bat deiturik dagoenean eta ez orain hurrena Parlamentua prozedura horren bidez desegin zenetik gutxienez urtebete iragan arte.
- Hartara, hauteskunde deialdiaren sortzen den Parlamentu berriak jatorrizko legegintzaldiaren berezko amaiera bitarteko agintaldia izanen du.

- b) Estatuarekin eta autonomi erkidegoekin hitzarmenak izenpetzeko.
- c) Lege Organiko honetako 39.3 artikulua aipatzen duen ekimena erabiltzeko.

27. artikulua. Nafarroako Gobernu lehendakariaren eta gainerako gobernukideen erantzukizun **penala**, behar izanez gero, **Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusian eskatu ahal izanen da, deusetan ukatu gabe Nafarroako lurralde esparrutik kanpora erantzukizun hori, Auzitegi Goreneko behar den salan eskatu ahal izatea, gisa berean eskatu ere.**
28. artikulua. 1. Nafarroako Gobernuak kargua utziko du Parlamenturako hauteskundeak egindakoan, baita bere konfiantza ukatu edo zentsura-mozio bat onesten duenean ere, edota lehendakariaren dimisioagatik edo haren heriotzagatik.
2. **Gobernu** kargu-uztaileak jardunean segituko du, **Gobernu berria** karguaz jabetu arte.

IV. KAPITULUA

Nafarroako Gobernu lehendakaria

29. artikulua. 1. Nafarroako Gobernu lehendakaria Parlamentuak hautatuko du eta **Erregek edo Erreginak** izendatuko.
2. Parlamentuko lehendakariak **Nafarroako Gobernu lehendakari** izateko hautagai bat proposatuko du, Parlamentuan ordezkari izateko duten alderdi edo talde politikoek izendatutako bozeramaleekin aitzinetik galdekatuta.
3. Hautagaiak bere programa aurkeztuko dio Parlamentuari. Hautatua izateko, hautagaiak, lehenbiziko bozketan erabateko gehiengoa lortu beharko du. Lortu ezean, bertze bozketa bati ekinen zaio hogeita lau orduren buruan eta hautagaiari konfiantza emantzat hartuko da bigarren bozketan gehiengo soila lortzen bada. Gehiengo hori ere lortzen ez bada, hautagaia arbuiautzat joko da eta hurrenez hurreneko proposamenak tramitatuko dira arestian aurreikusitako era berean.
4. Lehenbiziko bozketatik hogeita hamar egun natural iragan eta hautagairik bat ere hautatu ez bada, Parlamentua deseginen da eta berehala hauteskundeak deituko dira.
30. artikulua. 1. **Nafarroako Gobernu lehendakariak** Foru Komunitatearen ordezkari izateko goren du, baita Estatuaren ordezkari izateko ere Nafarroan.
2. **Gobernu lehendakariak kontseilariak** hautatu eta kargugabetzen ditu, **Gobernuaren** ekintza zuzentzen du eta foru lege batean zehaztuko diren gainerako eginkizunak betetzen ditu.
3. **Nafarroako Gobernu lehendakariak**, bera erantzule bakar dela eta **Nafarroako Gobernuak** horretaz iharduki ondoan, zilegi izanen du Parlamentua desegiteko erabakia hartu eta hauteskunde deialdia egitea, legegintzaldiaren berezko akabaila baino lehen.

31. artikulua. Lehendakaria eta foru diputatuak erantzule solidarioak dira Parlamentuaren aitzinean beren kudeaketa politikoaz, beren kudeaketan duten erantzukizun zuzena deusetan ukatu gabe.
32. artikulua. 1. Parlamentuak, bere lehendakariaren bitartez, bere eginkizunak aurrera eramateko beharrezkotzat jotzen dituen argibideak eta haren kideen agerpena eskatzen ahal dizkio Diputazioari.
2. Foru parlamentarietarako Diputazioari eskaera, galdera eta jabeldurak egin diezaizkiokete, baita mozioak aurkeztu ere, hori guztia Ganbarako Erregelamenduak adierazten duen gisan.
33. artikulua. Diputazioako lehendakariak eta diputatuak Parlamentuko osoko bilkuretara eta Batzordeen batzarretara agertzeko eta hantxe entzunak izateko eskubidea dute.
34. artikulua. 1. Foru Diputazioako lehendakariak bere jarduketara-programari buruzko konfiantza-eskea egin ahal izanzen du Parlamentuaren aitzinean, Ganbarako Erregelamenduan erabakitzen duen gisan. Konfiantza emantzat hartuko da baldin eta foru parlamentarien gehiengo soilak haren aldeko botua ematen badu.
2. Parlamentuak bere konfiantza ukatzen badio Diputazioako lehendakariari, honek berehala aurkeztuko du dimisioa, eta ondotik beste lehendakari bat hautatuko da.
35. artikulua. 1. Parlamentuak Diputazioaren erantzukizun politikoa exijitzen ahal du erabateko gehiengoaz zentsura-mozioa onetsiz.
2. Zentsura-mozioek, nahitaez Diputazioako Lehendakarietzarako hautagai baten proposamena ekarri behar dute berekin, eta Parlamentuko Erregelamenduak erabakitzen duen gisan aurkeztu eta izapidatuko dira. Nolanahi dela ere, zentsura-mozioa Parlamentuko kideen bostetik batek proposatu beharko du gutxienez. Zentsura-mozioa onesten ez bada, haren sinatzaileek ezin izanzen dute besterik aurkeztu batzarraldi berean.
3. Parlamentuak Diputazioaren kontrako zentsura-mozioa onesten badu, haren lehendakariak berehala aurkeztuko du dimisioa, eta onetsitako mozioan proposaturiko hautagaia izendatuko da Diputazioako lehendakari.

VI. KAPITULUA

Gatazka eta errekurtsioen araubidea

36. artikulua. Parlamentuak eta Diputazioak ahalmena izanzen dute eskumen-gatazkek eta konstituziokontraktotasun errekurtsioak aurkezteko legetan ezarritako eran eta kasuetan.

31. artikulua. Lehendakaria eta foru kontseilariak erantzule solidarioak dira Parlamentuaren aitzinean beren kudeaketa politikoaz, beren kudeaketan duten erantzukizun zuzena deusetan ukatu gabe.
32. artikulua. 1. Parlamentuak, bere lehendakariaren bitartez, bere eginkizunetan aritzeko beharrezkotzat jotzen dituen argibideak eta gobernukideen agerpena eskatzen ahal dizkio **Gobernuari**.
2. Foru parlamentarietarako **Gobernuari** eskaera, galdera eta interpelazioak egin diezaizkiokete, baita mozioak aurkeztu ere, hori guztia Ganbarako Erregelamenduak adierazten duen gisan.
33. artikulua. **Nafarroako Gobernuako lehendakariak** eta diputatuak Parlamentuko osoko bilkuretara eta Batzordeen batzarretara agertzeko eta hantxe entzunak izateko eskubidea dute.
34. artikulua. 1. **Nafarroako Gobernuako** lehendakariak bere jarduketara-programari buruzko konfiantza-eskea egiten ahal du Parlamentuaren aitzinean, Ganbarako Erregelamenduan zehazten den gisan. Konfiantza emantzat hartuko da baldin eta foru parlamentarien gehiengo soilak haren aldeko botoa ematen badu.
2. Parlamentuak bere konfiantza ukatzen badio **Nafarroako Gobernuako** lehendakariari, honek berehala aurkeztuko du dimisioa, eta ondotik bertze lehendakari bat hautatuko da.
35. artikulua. 1. Parlamentuak **Nafarroako Gobernuaren** erantzukizun politikoa galdatzen ahal du erabateko gehiengoaz zentsura-mozioa onetsiz.
2. Zentsura-mozioek, nahitaez **Nafarroako Gobernuako** Lehendakarietzarako hautagai baten proposamena ekarriko dute berekin, eta Parlamentuko Erregelamenduak erabakitzen duen gisara aurkeztu eta tramitatuko dira. Nolanahi dela ere, zentsura-mozioa Parlamentuko kideen bostetik batek proposatu beharko du gutxienez. Zentsura-mozioa onesten ez bada, haren sinatzaileek ezin izanzen dute bertzetik aurkeztu batzarraldi berean.
3. Parlamentuak **Gobernuaren** kontrako zentsura-mozioa onesten badu, haren lehendakariak berehala aurkeztuko du dimisioa, eta onetsitako mozioan proposaturiko hautagaia izendatuko da **Nafarroako Gobernuako** lehendakari.

VI. KAPITULUA

Estatuarekiko harreman politikorako printzipioak eta bermeen araubidea

36. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitatearen eta Espainiako Estatuaren arteko harremanetarako, Lege honetan berme juridikoen araubide bat jaso nahi da, printzipio hauetan oinarritua: erakundearen arteko elkarrekiko leialtasuna, lankidetzeta eta aginteen arteko oreka.
2. Nafarroako herritarrek, berriaz egiten zaien galdeketa beren erabaki askearen erabilpen demokratikoan, beren borondate argi eta zalantzarik gabeko baliozkotzat jotako botoen gehiengo osoan oinarritua adierazten dutenean Espainiako Estatuarekiko harreman politikorearen erdua eta araubidea osorik edo funtsean aldatzeko, baita Europarekiko eta nazioartekiko harremanak aldatzeko ere, orduan, Nafarroako erakundeek eta Estatuak beren

burua lotuko dute negoziazio prozesu bat bermatzera, nafar gizartearen borondate demokratikoa adostasunez gauzatzeko aukera emanen duten baldintza politiko berriak ezarri beharrez.

3. Harremanetarako araubide horrek itun politikoaren izaera duenez, Lege honetan lankidetzarako eta gatazkei aitzintzeko ezarritako tresna guztiak agortu beharko dituzte bai Nafarroak eta bai Estatuak. Beraz, batak nahiz bertzeak uko egiten diote alde bakarreko erabakiz ezartzeari edo legez erabiltzeari bertze aldeak nahitaez bete beharreko hertsatze neurriak.
4. Orokorrean, Estatuak eta Nafarroak aldez aurreko galdeketa- eta lankidetzeta-gutun bideak erabiliko direla bermatuko dute. Bide horietatik, erakundeek, askatasunez, informazioa eta lankidetzeta eska diezaioke elkarri, beren jarduerak harmonizatzeko eta gerta litezkeen gatazka egoerei aitzintzeko.

37. artikulua. 1. Nafarroa-Estatua Bitariko Batzordea sortzen da, Estatuako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak izendatutako ordezkari kopuru berak osatuta.

2. Nafarroa-Estatua Bitariko Batzordea orokorrean gobernuen arteko lankidetzako erakunde harremanez arduratuko da, eta harreman horiek harmonizatuko ditu. Zehazki, honako eginkizun hauek izanen ditu:

- a) Oinarrizko eskubide eta betebeharren garapenari eragiten dioten lege proiektuak aztertzea eta horien gaineko txostenak egitea.
- b) Gorte Nagusietan edo Foru Parlamentuan araugintzako lankidetzarako errekerimenduak kudeatzea, legeak, araugintzako xedapenak edo lege indarra duten egintzak tramitatzean Estatuaren eta Nafarroaren arteko harremanen eta eskumen banaketaren araubidea urra daitekeela ohartuz gero.
- c) Kanpo harremanen arloko jardueren koordinazioa eta segimendua.
- d) Lege honetan xedatutakoaren indarrez atxikitzen ahal zaizkion bertze eginkizun guztiak.

3. Nafarroa-Estatua Bitariko Batzordeak bere eginkizunak beteko ditu deusetan ukatu gabe politika eta gai zehatzak koordinatzeko legetan aurreikusten diren bertze erakunde bereziak.

38. artikulua. 1. Foru legeen gaineko kontrol bakarra, Konstituzioarekin bat heldu ote diren, Konstituzio Auzitegiak egingen du.

2. Konstituzio Auzitegiaren antolamendu juridiko eta prozesalerako neurri berezi hauek ezartzen dira Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez:

- a) Konstituzio Auzitegian sala berezi berria sortuko da, Nafarroaren eta Estatuaren arteko Gatazken Auzitegi gisara eratuko dena; Nafarroako erakunde eta agintee-kin ikusteko duten konstituzio-kontraktasuna adierazteko prozedurez eta konstituzio gatazkez arduratuko da, eta horretarako bereganatuko ditu aipatutako ahalmenen artean Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurari dagozkionak.
- b) Nafarroaren eta Estatuaren arteko Gatazken Auzitegi gisara eratutako Konstituzio Auzitegiko sala berezia sei magistratuk osatuko dute. Lehenbiziko hirurak Konstituzio Auzitegiak izendatuko ditu osoko bilkur-
an, Senatuak proposatuta, auzitegiko kide diren

37. artikulua. Foru legeen gaineko kontrol bakarra, Konstituzioarekin bat heldu ote diren, Konstituzio Auzitegiak egingen du.

38. artikulua. Nafarroako betearazte eta administrazio organoen egintza eta xedapenen aurka administrazioarekiko aferen jurisdikziora jo ahal izanen da, behin foru administrazioaren bidea agortuz gero.

magistratuen artetik. Bertze hirurak izendapen berrikoak izanen dira; Erregek edo Erreginak izendatuko ditu, Nafarroako Parlamentuak proposatuta, nafar legelarien artetik, eta gaitasunaren aldetik Auzitegiko magistratuen baldintza berak izan beharko dituzte legelari gisa. Bertako magistratu bat ariko da, txandakak, Sala Bereziko lehendakari.

- c) Eskumen-gatazka negatiboaren prozedura berria ezarriko da Konstituzio Auzitegirako; prozedura horretan Nafarroako Gobernuak izanen da auzi emaile eta Estatuko Gobernuak organo errekeritu, Konstituzioak zein legeek Nafarroari buruz ematen dizkioten eskurantzak erabiltzeko eskumenik gabekotzat jotzen duenean bere burua azken horrek. Auzitegiaren epaiak errekerimendua bidezkoa ez dela edo, aitzitik, bidezkoa dela ebatz lezake, eta azken kasu horretan epe bat ezarriko du errekeritutako eskurantza epe horretan erabiltzeko.
- d) Nafarroako aginte eta erakundeek konstituzio-akzio bat aurkezten ahalko diote Gatazken Auzitegiari, parte izan ez diren prozesuetan emandako epaiak Nafarroako autogobernuari eragiten ote dioten ebazteko. Akzioa idazki bakar baten bidez tramitatuko da, epai horiek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabeteko epean, epaiak Nafarroako eremuan ondoriorik sorrarazten ote duen erabaki dezan Nafarroaren eta Estatuaren arteko Gatazken Auzitegiak.
- e) Lege honen indarrez, Nafarroako erakundeak parte diren konstituzio-prozeduretan era berezian bermatu behar da aginteen arteko orekaren printzipioa; hartara, Estatuko Gobernuak egiten duenean nafar erakundeek onartutako arau-xedapenen eta erabakien kontra, ez dira bertzerik gabe etenda geldituko xedapen eta erabaki horiek, Konstituzioaren 161.2 artikulua orokorrean aurreikusi bezala.

II. TITULUA

NAFARROAREN AHALMENAK ETA ESKUMENAK

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

39. artikulua. 1. Lege Organiko honetako 2. artikuluan ezarritakoaren ariora, Nafarroari ondoko hauek dagozkio:
- a) Gaurregun erabiltzen dituen ahalmen eta eskumen guztiak, 1.841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduan eta xedapen osagarrietan ezarritakoaren babespean.
 - b) Lege Organiko honen bidez espreski gaineratzen zaizkion ahalmen eta eskumen guztiak.
 - c) Estatuko legeriak, izaera orokorrez, komunitate autonomei edo probintziei esleitu, transferitu edo eskuordetzen dizkien ahalmen eta eskumen guztiak.
2. Halaber, Nafarroari dagozkio, aitzineko idazatian ez dauden eta Foru Diputazioaren ekimenez Lege honek indarra hartu ondoren, Estatuak esleitu, transferitu edo eskuordetzen dizkion ahalmen eta eskumen guztiak.

II. TITULUA

NAFARROAREN AHALMENAK ETA ESKUMENAK

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

39. artikulua. 1. Lege Organiko honetako 2. artikuluan ezarritakoaren ariora, Nafarroari ondoko hauek dagozkio:
- a) Gaur egun erabiltzen dituen ahalmen eta eskumen guztiak, 1.841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduan eta xedapen osagarrietan ezarritakoaren babespean.
 - b) Lege Organiko honen bidez espresuki gaineratzen zaizkion ahalmen eta eskumen guztiak.
 - c) Estatuko legeriak eskunduntzaz, transferentziaz edo eskuordetzaz, erkidego autonomoen edo probintzien eskuetan orokorrean uzten dituen ahalmen eta eskubide guztiak.
2. Nafarroako erakundeek, Foru Lege baten bidez, erreferendum bidezko galdeketerako eskubidearen erabilera arautuko dute beren lurralde eremuan, eta, horretarako ezarriko dute kasu bakoitzean jarraitu beharreko prozedura, emaitzak baliozkoak izateko baldintzak eta emaitza horien sarbidea antolamendu juridikoan.

40. artikulua. 1. Nafarroak eskumen osoa duen gaietan, Foru Komunitateari ondoko ahalmen hauek dagozkie:
- Legegintzarakoa.
 - Erregelamendugintzarakoa.
 - Administraziokoa, ikuskaritza barne dela.
 - Berrikustekoa administrazio bidean.
2. Ahalmen horiek, Lege honetan eta berorrek aipatzen duen Estatuko legerian aurrikusitako eran erabili beharko dira.
3. Nafarroako Zuzenbidea beste edozein baino lehenago aplikatuko da Foru Komunitatearen eskumen osoko gaietan eta aurreko idazatietan aurrikusitako eran.
- Zuzenbide berekirik ezean, Estatuko Zuzenbidea aplikatuko da horren ordez.
4. Foru Zuzenbide Zibilaren alorrean, Lege Organiko honetako 48. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.
41. artikulua. 1. Lege Organiko honetako 58. artikulua aipatzen dituen gaietan, baita hemengo beste artikulua batzuetan gisa berean arautzen diren gaietan, ahalmen hauek dagozkie Foru Komunitateari:
- Legeria garatzekoa.
 - Erregelamendugintzarakoa.
 - Administraziokoa, ikuskaritza barne dela.
 - Berrikustekoa administrazio bidean.
2. Aitzineko idazatik a) lerroaldeak legeria garatzeko aipatzen duen ahalmena, zernahi dela ere, Estatuak ematen dituen oinarritzko araei jarraikiz erabili beharko da.
42. artikulua. 1. Lege Organiko honetako 58. artikulua aipatzen dituen gaietan, baita hemengo beste artikulua batzuetan gisa berean arautzen diren gaietan, ahalmen hauek dagozkie Foru Komunitateari:
- Erregelamendugintzarakoa, bere zerbitzuen antolaketarako.
 - Administraziokoa, ikuskaritza barne dela.
 - Berrikustekoa administrazio bidean.
2. Estatuak bere legeria garatzeko izaera orokorrez ematen dituen xedapenei jarraikiz erabiliko ditu Foru Komunitateak aitzineko idazatiak aipatzen dituen ahalmenak.
43. artikulua. Nafarroari dagozkion ahalmen eta eskumen guztiak bere lurraldeari dagozkiola ulertzen da, zerga aferetarako Nafarroaren eta Estatuaren arteko hitzarmenetan edota Estatuko legerian aurrikusitako kasuetan, Foru Erakundeek ematen dituzten arauak banan-banan izan dezaketean eragin-kortasuna deusetan ukatu gabe.
3. Halaber, Nafarroari dagozkio, aitzineko idatz-zatian ez egonda ere, Nafarroako Gobernuaren ekimenez Lege honek indarra hartu ondoan, Estatuak eskunduntzaz, transferentziaz edo eskuordetzaz, haren eskuetan uzten dituen ahalmen eta eskubide guztiak.
40. artikulua. Estatuaren eskuduntzan oso-osorik ez dauden gai guztietan, legegintzako ahalmena eta betearazteko ahalmena erabiltzea Nafarroaren eskuetan egonen da.
41. artikulua. 1. Oso-osorik Nafarroaren eskuduntzan dauden gaietan, Foru Komunitateak arauak, legeak eta erregelamenduak egiteko edo garapeneko ahalmenaren titulartasun osoa izanen du. Esparru horietan, Nafarroako erakundeetatik heldu den Zuzenbidea Nafarroan aplikatu daitekeen bakarra izanen da, deusetan ukatu gabe Europako Zuzenbidea zuzenean aplikatzea, hori bidezko denean. Halakoetan, Nafarroako erakundeek lana izanen da Europako xedapenen transposizioa bere ordenamendu juridikora, horrela behar dutenetan.
42. artikulua. 1. Lege honen indarrez, orokorrean Nafarroari dagozkio, bere lurraldearen barnean, gai guztiak betearazteko ahalmenak, salbu eta oso-osorik Estatuaren eskuduntza direnak Nafarroaren eremuan.
2. Nafarroako erakundeek eskuduntza diren betearazteko ahalmenak betearazpen eginkizun guztietara hedatuko dira, bai dagozkien Estatuko legeenak bai Nafarroako foru legeenak, eta haien barnean sartuko da legeak garatzeko, betearazteko eta antolatzeko erregelamenduak emateko ahalmena, baita zerbitzuen kudeaketa eta administrazio osoa, ikuskatzeko eta berrikusteko eginkizuna barne. Honi dagokionez, Nafarroako erakundeek eta dagozkien agintariek ematen dituzten erregelamenduzko arauak eta jarraibideak baizik ez dira aplikatuko Nafarroako lurralde eremuan.
43. artikulua. Lege honetan aurreikusten diren Nafarroako eskuduntza eta eskumenak bere lurralde eremurako direla ulertu behar da. Nafarroako erakundeek beren ahalmen horiek arautzeak edo erabiltzeak kanpoko bertze lurralde eremuren batean eragin badeza, Estatuko edo autonomi erkidegoko kasuan kasuko agintariek elkarlan eta lankidetzarako hitzarmenak bideratu beharko dira.

44. artikulua. Nafarroak eskumen osoa du ondoko gai hauen gainean:
1. Lurralde antolamendua, hirigintza eta etxebizitza.
 2. Herrilanak, horien legezko kalifikazioa Estatuaren interes orokorrekoa ez bada, edota haien egiteak Estatuko beste lurralderik ukitzen ez badu.
 3. Interes orokorrekoak ez diren aireportuak; heliportuak.
 4. Metereologi zerbitzua, gai honetan Estatuari dagozkion ahalmenak ukatu gabe.
 5. Ur-probexamenduak, ubideak eta ureztaketak, urak osoki Nafarroan barna iragaten badira eta haien probexamenduak Estatuko beste lurralderik ukitzen ez badu.
 6. Energia ekoiztu, banatu eta garraiatzeko instalazioak, garraioa Nafarroako lurraldetik kanpora ateratzen ez bada eta haren probexamenduak Estatuko beste lurralderik ukitzen ez badu, ur mineralak, termalak eta lurpekoak, hori guztia Estatuaren oinarritzako legeria deusetan ukatu gabe meatzaritzaren eta energiaren araubideaz den bezainbatean.
 7. Zientzia eta teknikaren ikerkuntza, Estuari sustapen eta koordinazio orokorrerako dagozkion ahalmenak deusetan ukatu gabe.
 8. Kultura, Estuarekin koordinaturik.
 9. Historia, arte, monumentu, arkitektura, arkeologia eta zientzia-ondarea, esportazioaren eta espoliazioaren aurka ondare horren defentsarako Estatuak dituen ahalmenak deusetan ukatu gabe.
 10. Agiritegiak, liburutegiak, museoak, hemerrotek eta Estuaren titulartasunekoak ez diren kultur-gordailurako gainerako zentroak.
 11. Arte Ederren sustapen eta irakaskuntzarekin ikusteko duten erakundeak.
 12. Eskulangintza.
 13. Turismoaren sustapena eta antolamendua.
 14. Kirolen eta aisiaren erabilera egokiaren sustapena.
 15. Ikuskizunak.
 16. Kasinoak, jokoak eta apostuak, Kirol Ongintzako Elkarrekiko Apostuak salbu.
 17. Gizarte laguntza.
 18. Komunitatearen garapena; emakumearen aurrerabideak; haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika.
 19. Irakaskuntza, kultura, arte, ongintza, laguntza eta gisako izaera duten elkarteak beren egitekoak nagusiki Nafarroan betetzen badituzte.
 20. Nafarroako Foru Zuzenbidearen arauari jarraikiz eratutako fundazioak.
 21. Nafarroarentzat interesa duen estatistika.
 22. Azokak eta barne merkatuak.
 23. Adin txikikoen babes eta tutoretzarako eta gizarteratzeko erakunde eta establezimendu publikoak Estatuko legeria orokorraren ariora.

44. artikulua. Nafarroak eskumen osoa du ondoko gai hauen gainean:
1. Lurralde antolamendua, hirigintza eta etxebizitza. **Inguru-mena eta ekologia. Industri isurketak eta isurketa kutsagarriak.**
 2. Herrilanak, horien legezko kalifikazioa Estatuaren interes orokorrekoa ez bada, edota horiek egitean Estatuko bertze lurralderik ukitu behar ez bada.
 3. Interes orokorrekoak ez diren aireportuak; heliportuak.
 4. **Metereologi zerbitzua.**
 5. Ur aprobexamenduak, ubideak eta ureztaketak, urak osoki Nafarroan barna iragaten badira eta haien aprobexamenduak Estatuko bertze lurralderik ukitzen ez badu.
 6. Energia ekoiztu, banatu eta garraiatzeko instalazioak, garraioa Nafarroako lurraldetik kanpora ateratzen ez bada eta haren aprobexamenduak Estatuko bertze lurralderik ukitzen ez badu, ur mineralak, termalak eta lurpekoak; **meatzaritza eta energiaren araubidea; baliabide geotermikoak.**
 7. Zientziaren eta teknikaren ikerkuntza.
 8. Turismoaren sustapena eta antolamendua.
 9. Kirolen eta aisiaren erabilera egokiaren sustapena.
 10. Ikuskizunak.
 11. Kasinoak, jokoak eta apostuak, Kirol eta Ongintzako Elkarrekiko Apostuak salbu.
 12. Irakaskuntza, kultura, arte, ongintza, laguntza eta gisako izaera duten elkarteak beren egitekoak nagusiki Nafarroan betetzen badituzte.
 13. Nafarroako Foru Zuzenbidearen arauari jarraikiz eratutako fundazioak.
 14. Nafarroarentzat interesa duen estatistika.
 15. Kontsumitzailearen eta erabiltzailearen defentsa. Barne merkatu eta azokak.
 16. **Nekazaritza eta Jabetza Ganberak, Merkataritza eta Industri Ganbera, deusetan ukatu gabe Estatuak kanpo merkataritzaren arloan dituen eskumenak.**
 17. Sor-marken eta publizitatearen arauketa, Estuarekin lankidetzan.
 18. Lanbide elkargoak eta lanbide tituludunen jarduera.
 19. Kooperatibak, Gizarte Segurantzaz sartu gabeko mutua-litateak eta positoak.
 20. Merkataritzako burtsak eta salgaiak eta baloreak kontratatze gainerako zentruak ezarri eta arautzea, merkataritzako legeriaren ariora.

24. Nekazaritza eta Jabetza Ganbarak. Merkataritza eta Industria Ganbara, legeria orokorraren funtsezko oinarrien ariora eta kanpo merkataritzaren alorrean Estatuak dituen eskumenak deusetan ukatu gabe.
 25. Jatorrizko izendapenaren eta publizitatearen arauketa, lankidetzan Estatuarekin.
 26. Lanbide elkargoak eta lanbide tituludunen jarduera, legeria orokorrari jarraikiz.
 27. Kooperatibak, Gizarte Segurantzaren sartu gabeko mutualitateak eta positoak, gai horretan legeria orokorrak dioen ariora.
 28. Merkataritzako burtsak eta salgaiak eta baloreak kontratatzeke gainerako zentruak ezarri eta arautzea, merkataritzako legeriaren ariora.
45. artikulua. 1. Bere foru araubidearen ariora, Nafarroako zerga eta finantza-jarduera hitzarmen ekonomikoaren tradiziozko sistemaren bidez arautuko da.
 2. Hitzarmen ekonomikoetan Nafarroak Estatuak karga orokorretarako eman beharreko ekarpenak zehaztu dira, eta horien zenbatekoa eta gaurkotzeko prozedura adieraziko, hala nola bere zerga-araubidea Estatuaren araubide orokorrek harmonizatzeko irizpideak ere.
 3. Nafarroak bere zerga-araubideari eusteko eta hura ezarri eta arautzeko ahalmena du, behar den Hitzarmen Ekonomikoan xedatzen dena deusetan ukatu gabe, horrek 1969ko Hitzarmen Ekonomikoaren Atariko Tituluaren barnean dauden printzipioak errespetatu beharko baititu, hala nola Lege Organiko honetako 1. artikulua aipatzen duen elkartasun printzipioa ere.
 4. Hitzarmen ekonomikoaren izaera itundua dela eta, behin Nazioako Gobernuak eta Diputazioak sinatu ondoan, Foru Parlamentuari eta Gorte Nagusiei igorriko zaizkie lege arruntaren bitartez onets ditzaten.
 5. Nafarroako zor publikoa eta balio berarekin Foru Komunitateak jaulkitzen dituen titulu-baloreak, fondo publikotzat joko dira ondorio guztietarako. Jaulkipenen bolumena eta ezaugarriak Estatuarekin koordinaturik ezarriko dira, Hobetze honetako 67. artikulua zehazten duenari jarraikiz.
 6. Foru lege batek Nafarroaren ondarea nahiz haren administrazioa, defentsa eta zainketa arautuko ditu.
 45. artikulua. 1. Bere foru araubidearen ondorioz, Nafarroak autonomia izanen du zergen eta finantzen aldetik, Lege honetan aitortzen zaizkion eskumenak garatu eta betearazteko
 2. Nafarroaren finantza-jarduera Estatuarekin koordinatu eta harmonizatuko da, Lege honetan aurreikusten denekin bat etorritik. Horren ariora, Nafarroak eta Estatuak finantza arloan elkarrekin lankidetzan aritzeko manerak ezarriko dira, bereziki Nafarroak Estatuak karga orokorrekin zer-nolako ekarpenak egin beharko dizkien, Estatuak diru-sarreretatik zenbat eskuratuko duen eta inbertsio publikoen politikan biek zer-nolako elkarlana izanen duten zehazteko.
 3. Nafarroak bere lurralde esparruan Estatuaren karga orokorrak finantzatzeko egin beharreko ekarpena hitzarmen ekonomikoaren tradiziozko sistemaren bidez arautuko da.
 4. Hitzarmen ekonomikoaren izaera itundua dela eta, behin Estatuak Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak sinatu ondoan, Foru Parlamentuari eta Gorte Nagusiei igorriko zaizkie, lege arruntaren bitartez onets ditzaten.
 5. Nafarroako erakundeek beren zerga sistema eta araubidea mantendu, ezarri eta arautzeko ahalmena dute, beren lurraldean ari direla; sistema hori inola ere ez da izanen konfiskatuzkoa, eta printzipio hauek izanen ditu gidari: berdintasuna, progresibitatea, gaitasun ekonomikoa eta nahikotasun finantziarioa.
 6. Nafarroako zerga sistema osatzen duten zerga mota guztiak ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea, berrikustea eta biltzea nafar erakunde eskudunei dago-kie.
 7. Artikulu honetan aipatzen den zerga-ahalmena erabiltzean, Nafarroako erakundeek errespetatu beharko dute Espainiako Estatuak sinatu eta berretsi dituen nazioarteko hitzarmen eta itunetan edo atxiki zaien haietan xedatua, bai eta Europar Batasuneko zerga-harmonizaziorako arauak ere.
 8. Nafarroako erakundeek Zor Publikoa jaulki nahiz kredituak eskatu ahal izanen dituzte inbertsioetako gastuak finantzatzeko, Nafarroako Parlamentuak lege baten bidez ezartzen duen gisan. Nafarroaren Zor Publikoa eta Foru Komunitateak jaulkitako titulu baliokideak diru publikotzat joko dira ondorio guztietarako, eta Estatuak Zor Publikoak dituen onura eta baldintza berak izanen dituzte.

46. artikulua. 1. Toki administrazioaren alorrean, Nafarroari honako hauek dagozkio:
- 1.841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduan, 1.925eko azaroaren 4ko Errege-Dekretu Lege Itunduan eta xedapen osagarrietan erabakitakoaren babespean.
 - Aurrekoekin bateragarriak izanik ere, Estatuako oinarriko legeriaren ariora komunitate autonomo edo probintziari dagozkiekeenak.
2. Foru Diputazioak, justizia auzitegien jurisdikzioa deusetan ukatu gabe, Nafarroako udal, kontzeju eta toki entitateen jarduketan legezotasunaren eta interes orokorraren kontrola eramanen du, foru lege batek xedatzen duenari jarraituz.
3. Nafarroako udalek, gutxienez, Nazioko gainerako udalei izaera orokorrean onartzen zaien autonomia izanen dute.
47. artikulua. Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauketa eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, deusetan ukatu gabe gai honi buruzko manu konstituzionaletan ezarritakoa, ez horiek garatzen dituzten lege organikoak, ezta ikasketa nahiz lanbide tituluak eskuratu, eman eta baliokidetzeko, hala nola berauek bete eta bermatzeko Estatuak duen goi-ikuskaritzaren baldintzak arautzeko dagokionez Estatuak dituen eskumenak ere.
48. artikulua. 1. Nafarroak eskumen osoa du Foru Zuzenbide Zibilararen alorrean.
2. Indarra duen Foru Zuzenbide Zibilararen Bilduma edo Nafarroako Foru Berriaren zainketa, aldaketa eta garapena, foru lege bidez egiten da behar izanez gero.
9. Nafarroako ondareak bere egiten ditu, inolako salbuespenik gabe, Lege honen arabera nafar erakundeek beren gain hartutako eskumen eta zerbitzuei lotuak dauden eskubide eta ondasun guztiak. Nafarroako Parlamentuak arautuko du jabari publikoko ondasunen eta herri-ondasunen araubide juridikoa –oinarrizko printzipio hauek begiratuta: besterenduezintasuna, preskribaezintasuna eta enbargaiezintasuna– eta ondasun horien desfektazioa, baita arautu ere jabari pribatuko ondasunen araubide juridikoa, kontzesio administratiboak –kontratuak bete beharren oinarriak begiratuta– eta Nafarroaren ondarearen administrazioa, babesia eta zainketa.
46. artikulua. 1. Toki administrazioaren alorrean, gaur egun dituen ahalmen eta eskumenak dagozkio Nafarroari, 1.841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduan, 1.925eko azaroaren 4ko Errege-Dekretu Lege Itunduan eta xedapen osagarrietan erabakitakoaren babespean.
2. Foru Lege baten bidez ezarriko dira Nafarroako etoki entitateen araubide juridikoa eta haien eskumenen araubidea, baita haien autonomia eta gaitasun finantziarioa arautu eta babestuko ere.
- Udalerriei buruzko legeak kontuan hartu beharko ditu Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean ezarritako oinarriko printzipioak, eta beharko du bermatu udal autonomia, alegia, udal autonomia erregelamenduak egiteko ahala, bakoitzak bere burua antolatzeko, finantzatzeko eta nor bere eskumenak kudeatzeko biltzen dituen eta, orobat, bermatuko haien partaidetza politika publikoak gauzatzen eta koordinatzen
3. Nafarroako udalerriek Foru Legeek ematen dizkieten eskumenak izanen dituzte, betiere kontuan hartuz subsidiaritasun printzipioa.
47. artikulua. Nafarroaren lana izanen da oinarriko eskubide eta bete beharren garapen konstituzionala, hezkuntza-eskubideari eta irakaskuntzarako askatasunari dagokienez.
2. Nafarroari hezkuntza arloan oso-osorik dagokion politika gauzatu, betearazi eta kontrolatzeko, nafar erakundeek legegintzako eta betearazteko ahalmen guztiak izanen dituzte ondoko arlo eta eremuetan:
- Unibertsitateaz kanpoko zein unibertsitateko irakaskuntza, arlo, maila, gradu, molde eta espezialitate guztietan, etengabeko ikaskuntza barne.
 - Lanbide heziketa, eta horren barnean kualifikazioko eta lanbide heziketa arautu, okupazional eta etengabeko prestakuntzako azpisisistema guztiak.
 - Ikasketa-tituluak eta lanbideetarako tituluak eskuratu, eman eta homologatzea.
48. artikulua. 1. Nafarroak eskumen osoa du Foru Zuzenbide Zibilararen alorrean.
2. Indarra duen Foru Zuzenbide Zibilararen Bilduma edo Nafarroako Foru Berriaren zainketa, aldaketa eta garapena, foru lege bidez egiten da behar izanez gero.
3. Eskumen oso horren barnean izanen dira:
- Bere lurraldean Zuzenbide hori nori ezarriko zaion jakiteko araubidea zehaztea.
 - Nafarroako erregistro eta agerkari publiko zibil guztiak antolatu eta kudeatzea, nafar erakundeen menpean badaude administratiboki edo judizialki.

49. artikulua. 1. Bere foru araubidearen kariaz, Nafarroari dagokio ondoko gai hauen gaineko eskumen osoa:

- a) Foru Erakundeen osaketa, eskurantzak, antolakuntza, jardunbidea eta araubide juridikoa arautzea, hala nola haien kideen hautaketa, hori guztia Lege Organiko honetako lehenbiziko tituluan erabakitako eran.
- b) Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu araubidea, Estatuak oinarrizko legeriak funtzionario publikoei onartzen dizkien funtsezko eskubide eta betebeharrak errespetatuz.
- c) Administrazio prozeduraren arauak edo, bestela, prozedura ekonomiko-administratiboarenak, Zuzenbide sustantiboaren edo antolakuntzaren alorrean Nafarroak bere dituen berezitasunetatik heldu direnak.
- d) Administrazio kontratu eta kontzesioak, gai horretan Estatuak duen oinarrizko legeriaren funtsezko printzipioak errespetatuz.
- e) Foru Diputazioaren, haren administrazioaren eta haren menpeko ente publikoen araubide juridikoa, administrazio publikoen aitzinean administratuen trataera berdina bermatuz.
- f) Beren ibilbidea osoki foru lurraldean duten trenbide, errepide eta bideak eta era berean, bide horietaz baliatuz egiten den garraioa, hala nola ibai eta kable bidezkoa.
- g) Kontratazio-zentroak eta garraiogaien terminalak.
- h) Abelbideak.

2. Halaberean, Nafarroari dagokio Estatuak legeria betearaztea salgai eta bidaiarien garraioa antolatze gaitan abiapuntua eta helmuga foru lurraldean badute, Estatuak beretzat gorde dezakeen betearazte zuzena deusetan ukatu gabe.

3. Nolanahi ere, aurreko idazatiek aipatzen dituzten gaitan nahiz trafikoari eta zirkulazioari dagokien guztian, Nafarroak gaur egun dituen ahalmen eta eskumenak osoki atxikiko ditu.

50. artikulua. 1. Nafarroak, bere foru araubidearen kariaz, eskumen osoa du ondoko gai hauen gainean:

- a) Nekazaritza eta abeltzaintza, ekonomiaren antolamendu orokorarekin bat.
- b) Ehiza; ibai eta aintziretako arrantza; arrain hazkuntza.
- c) Larre, belar eta galondoak.
- d) Naturgune babestuak eta mendialdeen trataera berezia, Estatuak oinarrizko legeriarekin bat.
- e) Nafarroako Foru Komunitatearen edota udal, kontzeju eta gainerako administrazio entitateen titulartasunekoak diren mendiak.

2. Orobat, partikularren jabetzako mendien alorrean ere Nafarroari dagokio Estatuak oinarrizko legeria lege bidez garatzea eta betearaztea.

c) Familia Zuzenbideari dagozkion harreman juridiko-zibilak antolatzea; horren barnean sartzen dira ezkontza-araubidearen ordezkotza diren pertsonen arteko elkartze iraunkorrak arautzearen ondorioak ere.

d) Ekonomiarekin eta ondarearekin ikusteko duten harreman juridiko-zibilak antolatzea, Estatuak kontratuetako betebeharrak direla-eta ezartzen dituen oinarriak begiratuta.

49. artikulua. 1. Bere foru araubidearen kariaz, Nafarroari dagokio ondoko gai hauen gaineko eskumen osoa:

- a) Alor hauek arautzea: Foru Erakundeen osaketa, eta haien eskurantzak, antolakuntza, jardunbidea eta araubide juridikoa, hala nola haien kideen hautaketa, hori guztia Lege Organiko honetako lehenbiziko tituluan ezarri den gisan.
- b) Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu araubidea.
- c) **Administrazio prozedura** edo, hala behar badu, prozedura ekonomiko-administratiboa, Nafarroak **berezko dituen** Zuzenbide sustantibotik edo antolakuntzatik heldu dena; **nahitaezko desjabetzapena, Nafarroako administrazio publiko guztien erantzukizun sistema, ondare eta araubide juridikoa.**
- d) Kontratu eta kontzesio administratiboak, gai horretan Estatuak duen oinarrizko legeriaren funtsezko printzipioak begiratu.
- e) Nafarroako Gobernuaren, haren administrazioaren eta haren menpeko ente publikoen araubide juridikoa, administrazio publikoen aitzinean administratuen trataera berdina bermatuz.
- f) Beren ibilbidea osoki foru lurraldean duten trenbide, errepide eta bideak eta gisa berean, bide horietaz baliatuz egiten den garraioa, hala nola ibai eta kable bidezkoa.
- g) Kontratazio-zentroak eta garraiogaien terminalak.
- h) Abelbideak.

2. Halaberean, Nafarroari dagokio Estatuak legeria betearaztea salgai eta bidaiarien garraioa antolatze gaitan abiapuntua eta helmuga foru lurraldean badute.

3. Nolanahi ere, aurreko idazatiek aipatzen dituzten gaitan nahiz trafikoari eta zirkulazioari dagokien guztian, Nafarroak gaur egun dituen ahalmen eta eskumenak osoki atxikiko ditu.

50. artikulua. 1. Nafarroak, bere foru araubidearen kariaz, eskumen osoa du ondoko gai hauen gainean:

- a) **Nekazaritza eta abeltzaintza.**
- b) Ehiza; ibai eta aintziretako arrantza; arrain hazkuntza.
- c) Larre, belar eta galondoak.
- d) **Naturgune babestuak eta mendi aldean trataera berezia.**
- e) **Mendiak, oihan aprobetxamendu eta zerbitzuak, abelbideak eta larreak.**
- f) **Industria.**
- g) **Telekomunikazioak.**
- h) **Informazioaren eta jakintzaren gizartearekin ikusteko duten teknologia berrien araubidea**

51. artikulua. 1. Foruzaingoaren araubidearen arauketa Nafarroari dagokio. Hark gaurregun dituen eginkizunak betetzen segituko du Foru Diputazioaren agintaritzaren gorenaren pean. Halaberean, Nafarroako toki polizien koordinazioa ere Nafarroari dagokio, bakoitzaren udal edo kontzejuko agintariekiko menpekotasuna deusetan ukatu gabe.

2. Nafarroak Foruzaingoaren helburu eta zerbitzuak zabal ditzake, behar den Lege Organikoan erabakitzen denaren barnean.

Foruzaingoaren eta Estatuko segurtasun kidego eta indarren jarduketa koordinatu nahi izanez gero Segurtasun Batzordea eratuko da, Foru Diputazioaren eta Nazioko Gobernuaren ordezkari kopuru berdinez osatua.

52. artikulua. Foru Diputazioari dagokio hauek izendatzeko eskumena:

1. Nafarroan zerbitzua eskaini behar duten notario eta jabetza eta merkataritza erregistratzaileak. Izendapena Estatuko legeen aiora eginen da eta horretarako Nafarroako Foru Zuzenbidea jakitea bereziki baloratuko da, baina jatorria edo herritartasuna dela eta ezin izanen da inolako salbuespenik ezarri.

Notario-barrutiak eta Jabetza eta Merkataritza Erregistroei dagozkienak finkatzerakoan, Foru Diputazioak parte hartuko du Lege Organiko honetako 60.2 artikuluan erabakitakoari egokitu asmoz. Halaberean parte hartuko du, Estatuko legeetan aurrikusitakoari jarraikiz, beren eginkizuna Nafarroan bete behar duten notarioen kopurua erabakitzera.

2. Merkataritza artekariak eta, bestela, Nafarroan zerbitzua eskaini behar duten burtsako agenteak. Izendapena Estatuko legeei jarraikiz eginen da eta dagozkien barrutiak Foru Diputazioaren parte hartzearekin finkatuko dira.

53. artikulua. 1. Barne osasuna eta higiene alorretan, gaur egun dituen ahalmenak eta eskumenak dagozkio Nafarroari eta, gainera, Estatuko oinarritzko legeria lege bidez garatzea eta betearaztea.

2. Bere lurraldearen barnean, Nafarroak aitzineko idazatiak aipatzen duen gaiari dagozkion zerbitzu guztiak antolatuta eta administratzen ahal ditu eta haiekin ikusteko duten erakunde, entitate eta fundazio guztien tutoretza eginen du.

3. Aitzineko idazatietan erabakitakoa deusetan ukatu gabe, Estatuari dagokio artikulua honetako ahalmen eta eskumenak betetzera bideratutako koordinazioa eta goi-ikuskaritza.

2. Lege honen indarrez, Nafarroaren jabari publikoko ondasun izanen dira haren lurraldean dauden natur baliabi-deak. Ondasun horiek nola administratu, babestu eta zaindu Foru lege baten bidez arautuko da, betiere nazioarteko arau eta itunak begiratu eta Estatuko legeriaren funtsezko printzipio eta helburuak beteta.

51. artikulua. 1. Konstituzioaren lehenbiziko xedapen gehigarrian foru araubidea eguneratzeko aurreikusia dagoen prozeduraren bidez, Nafarroari dagozkio, pertsonak eta ondasunak babesteari begira, legegintzako eta betearazteko agintaritzari eta segurtasunari buruzko eginkizunen gainean, baita bere Foruzaingoaren araubidea ere, Nafarroako Gobernuak agintari gorenaren duela. Halaberean, Nafarroako toki polizien koordinazioa ere Nafarroari dagokio, bakoitzaren udal edo kontzejuko agintariekiko menpekotasuna deusetan ukatu gabe.

2. Estatuko segurtasun-indar eta kidegoen esku geldituko dira, Nafarroan aitzina eramateko, oso-osorik Estatuaren esku utzitako politika publikoak kontrolatzeari lotuta dauden polizia-zerbitzuak, eta horiek baizik ez.

Foruzaingoaren eta Estatuko segurtasun kidego eta indarren jarduketa koordinatu beharrez Segurtasun Batzordea eratuko da, Nafarroako Gobernutik eta Estatuko Gobernutik ordezkari kopuru berak osatua.

52. artikulua. Nafarroako Gobernuari dagokio hauek izendatzeko eskumena:

1. Nafarroan zerbitzu egin behar duten notario eta jabetza eta merkataritza erregistratzaileak. Izendapena Estatuko legeen aiora eginen da eta horretarako Nafarroako Foru Zuzenbidea jakitea bereziki baloratuko da, baina jatorria edo herritartasuna dela eta ezin izanen da inolako salbuespenik ezarri.

Notario-barrutiak eta Jabetza eta Merkataritza Erregistroei dagozkienak finkatzerakoan, Nafarroako Gobernuak parte hartuko du aginte judizialaren antolamendura egokitu beharrez. Halaberean parte hartuko du, Estatuko legeetan aurrikusitakoari jarraikiz, beren eginkizuna Nafarroan bete behar duten notarioen kopurua erabakitzera.

2. Merkataritzako artekariak eta, hala behar badu, Nafarroan zerbitzua eskaini behar duten burtsako agenteak. Izendapena Estatuko legeei jarraikiz eginen da eta dagozkien barrutiak Nafarroako Gobernuaren parte hartzearekin finkatuko dira.

53. artikulua. 1. Gizarte eta osasun arloan, Nafarroari dagozkio, oso-osorik, legegintzako eta betearazteko ahalmen guztiak ondoko gaietan:

a) Barneko eta kanpoko osasuna.

b) Farmazien antolamendua eta osasun arloko eta farmaziako produktuak.

c) Gizarte laguntza.

d) Adingabeak babestu eta zaintzeko erakunde eta egoitzak.

e) Espetxe eta gizarteratzeko erakundeak eta horien araubidea.

f) Garapen komunitarioa.

g) Genero berdintasunerako politikak.

h) Haur, gazte eta adinekoen aldeko politika.

i) Immigrazio politikak.

j) Gizartean eta lan munduan sartzeko politikak.

k) Aukera berdintasunerako politikak.

l) Familia babesteko politikak.

54. artikulua. 1. Gizarte segurantzaren alorrean, Nafarroari hau dagokio:
- Estatuko oinarrizko legeria lege bidez garatzea eta betearaztea, Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa egituratzen duten arauak izan ezik.
 - Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa.
2. Bere lurraldearen barnean, Nafarroak aitzineko idazatiak aipatzen dituen gaietako zerbitzu guztiak antolatu eta administratzen ahal ditu eta haiekin ikusteko duten erakunde, entitate eta fundazio guztien tutoretza egiten du.
3. Estatuari dagokio artikulua honetako ahalmen eta eskumenak betetzera bideratutako goi-ikuskaritza.
55. artikulua. 1 Nafarroari dagokio irriti zabalpen eta telebistaren araubidea lege bidez garatzea, baita hura betearaztea ere, irriti eta telebistaren estatutu juridikoa arautzen duen legean erabakitzen den gisan eta halabereko kasuetan.
2. Orobat dagokio prentsaren araubideaz Estatuak dituen oinarrizko arauak eta, oro har, gizarte-hedabide guztiak buruzkoak, lege bidez garatzea eta betearaztea.
3. Aitzineko idazatian erabakitakoaren ariora, Nafarroak bere prentsa, irriti eta telebista arautu, sortu eta mantendu ahal izanen du eta, oro har, bere helburuak erdiesteko behar dituen gizarte-hedabide guztiak.
56. artikulua. 1. Jarduera ekonomiko orokorraren oinarri eta antolamendurekin bat eta moneta, kreditu, banku, eta aseguruaren arloan Estatuak duen politikarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa izanen du Konstituzioaren arlo hauetako manuetan diogen gisan, ondoko gai hauen gainean:
- Jarduera ekonomikoaren plangintza eta garapen ekonomikoaren sustapena Nafarroaren barnean.
 - Industria, deusetan ukatu gabe Estatuak arauak segurtasun, osasun edota interes militarreko arrazoia direla

54. artikulua. 1. Gizarte segurantzaren alorrean, herritar guztientzat sistema publiko bat mantentzea dagokio Nafarroari; horren bidez, premia sortzen denean behar adina laguntza eta gizarte prestazioak izatea bermatuko da.
2. Nafarroako erakundeek lana izanen da Estatuak gizarte aurreikuspenaren eta gizarte segurantzaren arloan duen legeria garatzea, baita bere lurraldean gizarte segurantzaren sistema publikoa kudeatzea ere; hori guztia bere aurrekontua izanik egiten da, eta horren barnean egonen da Foru Komunitatean sorrarazitako kotizazioak eskuratzeko eginkizuna eta bere lurraldean egonik sistemari atxikita dagoen ondarea kudeatzeko eginkizuna ere.
3. Estatu osoko gizarte segurantzaren sistemako baliabideen titulartasunaren batasunaren printzipioa bermatuko dute Nafarroako erakundeek. Horri dagokionez, Nafarroako erakundeek sistema horretan parte hartzeko, Lege honetan aurreikusitako Hitzarmen Ekonomikoaren sistemari jarraituko zaio; hitzarmen horretan baliabide ekonomikoaren joan-etorriak eta ikuskabideak arautuko dira, Estatu osoko herritarren arteko elkartasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak bermatzeko maneran.
4. Nafarroak bere lurraldean antolatzen eta administratzen ahalko ditu artikulua honetan aipatu diren arloekin ikusteko duten zerbitzu guztiak, eta tutoretza egiten du gizarte segurantzaren inguruko erakunde, entitate eta fundazioen gainean.
- Artículo 55º. 1. Nafarroaren lana izanen da oinarrizko eskubide eta betebeharren garapen konstituzionala adierazpen eta komunikazio eskubideei dagokienez.
2. Kultura arloko politika Nafarroaren eskumen osoa denez, nafar erakundeek legegintzako eta betearazteko ahalmen guztiak izanen dituzte ondoko arlo eta eremuetan:
- Kultura, arte eta monumentu ondarea defendatu eta babestea.
 - Eskulangintza.
 - Museo, liburutegi eta artxiboak.
 - Zinema, arte eszenikoak, kirola eta ikuskizunak.
 - Prentsaren, irratia eta telebistaren araubidea, eta, orokorrean, gizarte hedabide guztiena.
3. Aitzineko idatz-zatietan ezarriarekin bat, Nafarroak arautzen, sortzen eta mantentzen ahalko ditu bere prentsa, irratia eta telebista, eta oro har, gizarte hedabide guztiak, bere helburuak bete beharrez.
4. Nafarroako erakundeek Nafarroaren ondare historiko, kultural eta artistikoa nahiz ondare horretako ondasunak zaintzea bermatuko dute, eta ondare eta ondasunon aberastea sustatuko, edozein izanda ere horien araubidea eta titulartasuna.
56. artikulua. 1. Nafarroako erakundeek dagokie oso-osorik jarduera ekonomikoaren antolamendua eta plangintza eta Nafarroako ekonomiaren garapenaren sustapena eta bultzada, betiere jabetza pribaturako eskubidearekin eta enpresen askatasuna errespetatzearekin bat etorritik, merkatu-ekonomiaren barnean.
2. Nafarroako erakundeek jarduera ekonomikoaren ekimen publikoak erabili ahal izateko, Nafarroako Parlamentuak baizik ezin izanen du oinarrizko baliabide edo zerbitzu batzuk lege bidez sektore publikoaren esku utzi –berezi-

eta erabakitzen dutena ezta meategi, hidrokarburo eta energia nuklearrari buruzko legeriari loturik dauden industriekin ikusteko duten arauak ere. Aldiz, Estatuaren eskumen osoa izanen da atzerriko teknologia transferitzeko baimena.

- c) Industri sektoreen birmoldaketarako Estatuak ezarritako planak Nafarroan garatu eta betearaztea, berorietan ezarritakoari jarraikiz.
 - d) Barne merkataritza eta kontsumitzailearen eta erabiltzailearen defentsa, deusetan ukatu gabe prezioen politika orokorra, ondasunen zirkulazio librea lurralde nazionalen eta konkurrentziaren defentsari buruzko legeria.
 - e) Kreditu-erakunde korporatibo, publiko eta lurralde mailakoak.
 - f) Aurrezki kutzak, gai honetan hitzarmenen araubide berezia deusetan ukatu gabe.
 - g) Nafarroako sektore publiko ekonomikoa, Lege Organiko honetako bestelako manuetan jasotzen ez den heinean.
2. Aitzineko idazatiak aipatzen duen Nafarroaren eskumen osoa merkatu-ekonomiaren barnean enpresa-askatasunari zor zaion errespetua deusetan ukatu gabe ulertuko da.
3. Nafarroak, halaber, Estatuaren sektore publiko ekonomikoaren kudeaketan parte hartuko du bidezko kasu eta jardueretan eta, Estatuko legeek ezartzen duten ariora, bere ordezkari berekiak izendatzeko aukera izanen du Estatuaren erakunde ekonomiko, finantza-erakunde eta enpresa publikoetan, beren eskumena Nafarroako lurraldera hedatu eta beren izaeragatik transferitzen ahal ez badira.
57. artikulua. Estatuko oinarritzko legeriaren xedearen barnean, Nafarroari dagokio, honako gai hauek garatu eta betearaztea:
- a) Nafarroako administrazio publikoen erantzukizun-sistema.
 - b) Nahitaezko desjabetzapena, bere eskumen berekien eremuaren barnean.
 - c) Ingurugiroa eta ekologia.
 - d) Baliabideak eta funtsezko zerbitzuak sektore publikoarendako gordetzea, monopolioaren kasuan bereziki; enpresetan eskuhartzea, interes orokorrak hala eskatzen badu.
 - e) Kreditu, banku eta aseguruaren antolamendua.
 - f) Meatzaritza eta energiaren araubidea; baliabide geotermikoak.
58. artikulua. 1. Nafarroari dagokio Estatuko legeria betearaztea ondoko gai hauetan:
- a) Espetxeak.
 - b) Lan mundua, lan-harremani dagokienean Estatuak gaur egun dituen batearazte ahalmen, eskumen eta zerbitzuak bere gain hartuz, haren goi ikuskaritza deusetan ukatu gabe.
- Barne eta kanpo migrazioei buruzko eskumen guztiak, hala nola nazio eremuko fondoak eta enplegu-fondoak

ki monopolio kasuan– eta enpresen gaineko esku-hartzea erabaki, interes orokorrak hala eskatuz gero.

3. Ildo beretik, eta Estatuko legeriaren oinarritzko printzipioak begiratuta, Nafarroako Parlamentuaren lana izanen da jabetza pribatuaren eginkizun sozialaren mugak arautzea. Halaber, Nafarroako Parlamentuari dagokio jabetza pribatuaren ondoriozko eskubideen erabileraren mugatze oro arautzea, onura publikoagatik edo gizarte interesagatik horretarako arrazoi aski baldin bada; nolahi ere, kasu guztietan kalteordaina eman beharko da.
 4. Estatuak behar diren bideak emanen ditu nafar erakundeek lurraldez gaingidiko jarduera ekonomikoaren plangintzan parte hartzeko aukera izan dezaten.
 5. Era berean, behar diren bideak emanen dira nafar erakundeek Europar Batasunean parte hartu ahal izateko, Batasuneko politika ekonomikoa definitzen lagun dezaten, bai eta nazioarteko itun eta hitzarmenetan parte hartu ahal izateko ere, baldin eta eraginik badute haren ahalmen eta eskumenen erabileran.
 6. Orobat, Nafarroako erakundeek Estatuko sektore publiko ekonomikoaren kudeaketan parte hartuko dute beren lurraldearen barnean eta, Estatuarekin bat etorrita, beren ordezkariak izendatuko dituzte Estatuko eta, behar izanez gero, Europar Batasuneko erakunde ekonomikoetarako, kontrol-organoetarako, finantza-erakundeetarako eta Estatuko enpresa publikoetarako, haien eskumenak edo eragina Nafarroako lurralde eremura hedatzen badira.
 7. Nafarroako erakundeek Lege honetan aitortzen zaizkien ahalmen eta eskumenak erabiltzerakoan, elkartasunaren eta lurralde arteko oreka ekonomikoaren printzipioa bete beharko dute, eta, horrekin batera, pertsonen mugitzeko eta kokatzeko duten askatasuna eta ondasun, kapital eta zerbitzuak mugitzeko askatasuna begiratu eta bermatu beharko dituzte, inolako bereizkeriarik sortu gabe eta enpresen arteko lehia askerako aukerak murriztu gabe.
57. artikulua. 1. Nafar erakundeek dagokie oso-osorik Nafarroako finantza sistema arautu eta ikuskatzea, bat etorritik, kreditua, bankuak eta aseguruak antolatzeari dagokionez, Europar Batasuneko nahiz Estatuaren esku dagoen merkataritza-legeria komunaren oinarritzko esparruarekin.
2. Nafarroak Estatuko eta, behar izanez gero, Europar Batasuneko finantza sistema kontrolatzeko instituzio eta erakundeetan parte hartuko du eta haietan ordezkariak izendatuko, Estatuarekin bat etorrita, haien eskumenak edo eragina Nafarroaren lurralde eremura hedatzen badira.

Artículo 58º. 1. Nafarroaren esku uzten dira gizarte eta lan arloan bere esparrua ezarri eta arautzeko beharrezko diren ahalmen eta eginkizun publiko guztiak. Gizarte eta lan arloan dituen eskumenak erabiltzean, kontuan izanen ditu langile eta enpresaburuen oinarritzko eskubide eta betebeharrak, Estatuan eta Europa mailan zehaztuta daudenak.

2. Nafarroari dagozkio legegintzako eta betearazteko ahalmenak lan, enplegu eta prestakuntza arloan eta laneko arriskuei aitzintzekoan. Horretarako, eta bere lurraldean,

- Estatuaren esku geratuko dira.
- c) Jabetza intelektual eta industri jabetza.
 - d) Pisuak eta neurriak; metalen kontrastea.
 - e) Nafarroan egiten diren nazioarteko azokak.
 - f) Interes orokorreko aireportuak, Estatuak horien kudeaketa zuzena beretako gordetzen ez duenean.
 - g) Botikak eta botikagaiak.
 - h) Industri hondakin kutsakorrak.
 - i) Estatuaren titulartasuneko agiritegi, liburutegi, museo eta gisako gainerako zentruak, horiek betearaztea Estatuak beretako gordetzen ez badu.
2. Halaber Foru Komunitateari dagokio nazioarteko itun eta hitzarmenak bere lurraldearen barnean betearaztea Nafarroaren eskumeneko gai berekietan ukitzen dituzten hartan.

III. KAPITULUA

Justizia Administrazioa Nafarroan

59. artikulua. 1. Nafarroan Justizia Auzitegi Nagusia eratuko da, eta horrek buru egingen du Foru Komunitatearen lurralde eremuko antolamendu judizialaren. Haren aitzinean, hurrenez hurren, auzibideko instantzia guztiak agortuko dira Auzitegi Gorenari dagokion eskumena deusetan ukatu gabe.
2. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren barnean Iruñeko Lurralde Entzutegia sartuko da.
60. artikulua. Justizia Administrazioari dagokionez, jurisdikzio militarra salbuetsiz, Nafarroari hau dagokio:
- 1. Botere Judizialari buruzko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari buruzko Lege Organikoek Estatuko Gober-

Nafarroak aipatu diren arlo horiekin ikusteko duten zerbitzu guztiak antolatzen, kudeatzen eta zaintzen ahalko ditu, ikuskaritza barne, betiere Estatuarekiko elkarlanean eta lankidetzan.

- 3. Nafar erakundeek eskumena izanen dute, beren lurralde eremuan, sindikatuen eta enpresaburu-elkarteen ordezkariak zehazteko, irizpide arrunt demokratikoak erabilita, bai eta negoziazio kolektiboaren araubidea eta eraginkortasuna zehazteko ere, Nafarroako sindikatuek eta enpresaburu-elkarrekin hitzartutakoa errespetatuz.
- 4. Nafar erakundeek behar diren alde biko tresnak ezarriko dituzte, bai Estatuarekin eta bai Europar Batasunarekin, lan arloko eskumenak erabiltzean elkarlanean eta lankidetzan aritzeko. Eskumen horiek erabiltzearen ondorioz finantza arloan sortzen diren harremanak, Estatuko edo Europako funtsetan parte hartzea barne, Hitzarmen Ekonomikoaren sistemari lotu beharko zaizkio, elkartasun printzipioa kontuan hartuta.
- 5. Lan arloko eskumenak erabiltzerakoan, sindikatuen eta enpresaburu-elkarteen partehartze demokratikoaren irizpideei jarraikiko zaizkie Nafarroako aginte publikoak; horrekin batera, ahaleginak egingen dira lan baldintzak gizartearen garapen eta aurrerapen mailarekin bat etor daitezzen, eta langileen kualifikazio eta etengabeko prestakuntza sustatuko dute, langileek lanean egingen dituzten urte guztietan.

III. KAPITULUA

Aginte judiziala Nafarroan

59. artikulua. 1. Nafarroan, antolaketa judizialak Nafarroako Auzitegi Nagusian du gailurra, eta Foru Komunitatearen lurralde osoan izanen ditu eskumenak; prozesuko instantzia guztiak auzitegi horretan agortuko dira, kasazio-errekurtsoak nahiz jurisdikzioko arlo guztietako azken instantzia barne.
- 2. Nafarroako jurisdikzio-organoen eskumena, aplikatutako Zuzenbidea zernahi dela ere, arlo, instantzia eta maila guztietara hedatzen da, eta Estatu osoan salbuespen bakarra Auzitegi Gorenaren jurisdikzioa izanen da.
 - 3. Nafarroako jurisdikzio-organoen eskumenari buruz, Auzitegi Gorenari dagokio, Aginte judizialeko organo gorenaren denez, doktrina bateratzea, baldin Zuzenbidea manera argi eta garbi kontraesankorrean aplikatzen bada zenbait organo judizialen artean edo Auzitegi Gorenaren beraren jurisprudentziaren aldean. Auzitegi horri dagokio, era berean, Nafarroako organo judizialen eta Estatuko bertze organoen arteko eskumen auziez eta jurisdikzio auziez arduratzea ere.
 - 4. Orobat, Nafarroako jurisdikzio-organoen eskumenaz den bezainbatean, artikulua honetan aurreikusi direnak goiti-beheiti, bere hartan dirau oinarrizko eskubideak babestu eta zaintzeaz Konstituzio Auzitegiari dagokion jurisdikzioak, bai eta egun egoitza Estrasburgoan duen Giza Eskubideen Europako Auzitegiari dagokionak ere, indarrean dauden bakoitzaren erregulazioen arabera.
60. artikulua. 1. Nafarroan, Nafarroako Kontseilu Judizialari dagokio Aginte judizialaren gobernuak; Estatuko Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin lankidetzan estuan ariz erabiliko ditu bere eskumenak eta eginkizunak, jurisdikzio

- nuari onartzen edo esleitzen dizkion ahalmen guztiak erabiltzea.
2. Beren eginkizunak Nafarroan betetzen dituzten organo juridikzionalen lurralde barrutiak mugatzean nahiz bere hiriburutasuna non izan behar duen erabakitzerakoan parte hartzea.
61. artikulua. 1. Nafarroan kokaturiko organo juridikzionalen eskumen dira:
- a) Arlo zibilean, instantzia eta gradu guztiak, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren gaitan kasazio eta berrikuspen errekurtsuak barne direla.
 - b) Gizarte arloan eta penalean, instantzia eta gradu guztiak, kasazio eta berrikuspen errekurtsuak salbu.
 - c) Administrazioarekiko aferen arloan, instantzia eta gradu guztiak, Foru Administrazioak emandako egintzak direnean. Estatuaren Administrazioak Nafarroan emandako egintzak badira, Administrazioarekiko Aferen Jurisdikzioari buruzko Legeak xedatutakoari jarraituko zaio.
 - d) Nafarroan kokaturiko organo judizialen arteko eskumen-auziak.
 - e) Nafarroako Foru Zuzenbidearen gainean jabetza erregistroetan sarrera izan behar duten agirien kalifikazioari buruzko errekurtsuak.
2. Gainerako gaitan, Estatuako legeen ariora bidezko diren errekurtsuak Auzitegi Gorenean aurkezten ahal dira.
62. artikulua. 1. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakaria Erregek izendatuko du, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak proposatuta.
2. Beren zerbitzua Nafarroan eskaini behar duten magistratu, epaile eta idazkarien izendapena, Botere Judizialari buruzko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari buruzko Lege Organikoetan aurrikusitako eran egingen da.
 3. Justizia Administrazioaren zerbitzuko gainerako langileetan Nafarroan zerbitzu egin behar dutenak Estatuako lege-ria orokorrean aurrikusitako eran izendatuko dira.
- batasun eta independentziaren printzipioak babesteko. Kontseilu Judizialaren eskumenak goiti-beheiti, bere hartan diraute auzitegi-tako lehendakari- eta gainerako jurisdikzio-organoen titularrei beren eremu organikoan dagozkien eskurantz-ek.
2. Nafarroako Kontseilu Judizialak izendatuko du Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakaria. Kontseilu horri dagozkio, halaber, epaitegiak eta auzitegiak ikuskatzeko ahalmenak, baita Nafarroan Aginte judiziala ukitzen duten gaitan iritzia ematea eta txostenak egitea ere. Era berean, Nafarroako Kontseilu Judizialari dagokio, Aginte Judizialaren Lege Organikoan finkatutako oinarri-zko eta funtsezko irizpideekin bat etorriz, foru legeetan xedatua aplikatzea Nafarroako idazkari, epaile, magistratu eta fiskalen hautaketari eta haien hornidurari, karrerari eta prestakuntzari dagokienez eta haien diziplina eta ordainketa araubideari dagokionez ere, kontuan hartuta, horretarako, Nafarroako Zuzenbidea eta euskara jakiteak duen lehentasuna.
 3. Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariak eta bertze kide batzuek osatuko dute Nafarroako Kontseilu Judiziala, eta Auzitegi Nagusiko lehendakaria izanen da kontseiluburu. Kideak nor izanen diren eta haien estatutu juridikoa foru lege baten bidez arautuko da; horretarako kontuan hartuko da, batetik, kideen gaitasuna eta, bertzetik, kideetarikoz batzuk beren eginkizunak Nafarroan betetzen ari diren epaile eta magistratuen arteko hautatzea bermatuko duen irizpide mistoa.
61. artikulua. 1. Fiskaltzak Nafarroan izanen duen antolaketa eta funtzionamendua Foru Lege batek arautuko du; horrek legezkotasuna bere osotasunean defendatzeko aginduko dio, jurisdikzio- arlo guztietan antolamendu juridikoak haren ardurapean utzitako ekintza guztiak erabiliz horretarako.
2. Justizia Auzitegi Nagusiko fiskalburua Nafarroako Kontseilu Judizialak izendatuko du. Fiskalburu horrek beteko du Nafarroako fiskaltza guztien eta haien antolaketaren gaineko zuzeneko burutza. Hari dagokio, halaberean, fiskalen izendapenerako eta karrerarako proposamena egitea, Nafarroako Kontseilu Judizialak izenda ditzan, eta, horrez landa, karguak bere dituen gainerako ahalmenak.
62. artikulua. 1. Justizia Administrazioa dela- eta antolamendu juridikoak zehazten dituen ahalmen betearazle eta organiko guztiak erabiliko ditu Nafarroak bere lurraldean, herritarren oinarri-zko eskubide eta betebeharrak babestea bermatzeko Estatuan indarrean dauden printzipio eta lege prozesal berak aplikatuz.
2. Justizia dohanik izanen da Nafarroako Foru Komunitatean, legeak ezartzen duen gisan; hala izanen da, betiere, diru baliabide aski ez dutela egiaztatzen dutenentzat, defentsa profesional eta independenterako eskubidea bermatua izan dezaten legeak agintzen duen prozesu guztietan.

63. artikulua. 1. Diputazioaren eskariz, Botere Judizialari buruzko Lege Organikoak xedatzen duen ariora, organo eskudunak beharrezko diren lehiaketa eta oposizioetarako deia egiten du magistratu, epaile, idazkari hala nola Justizia Administrazioaren zerbitzuko gainerako langileetan Nafarroan zerbitzu egin behar dutenen lanpostu hutsak betetzeko.
2. Hautapen proba horietan Nafarroako Foru Zuzenbideko espezializazioa baloratuko da bereziki, baina jatorria edo herritartasuna dela eta ezin izanen da inolako salbuespenik ezarri.

IV. KAPITULUA

Estatuko Administrazioarekiko harremanak

64. artikulua. Konstituzioaren lehenbiziko xedapen gehigarriaren lehenbiziko leerroaldean eta Lege honetako bigarren artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Estatuko Administrazioaren eta Foru Komunitatearen arteko harremanak beren ahalmen eta eskumenei doakienean, foru araubidearen izaeraren ariora ezarriko dira eta, kasuan-kasuan, dagokion mailako xedapen baten bidez gauzatu beharko dira.
65. artikulua. Estatuko Administrazioak eta Foru Administrazioak lankidetzaz hitzarmenak egin ditzakete interes amankomuneko lan eta zerbitzuak kudeatu eta eskaintzeko.
66. artikulua. Nazioko Gobernuak izendatutako ordezkari batek zuzenduko du Estatuaren Administrazioa Nafarroan eta, bidezko denean, Foru Administrazioarekin koordinatuko.
67. artikulua. Estatuko Administrazioa eta Foru Diputazioa, bakoitzaren ahalmen eta eskumenen kudeaketa zuzenerako elkarlanean ariko dira, eta horretarako beren berri emanen diote elkarri.
68. artikulua. Nazioko Gobernuak jakinaren gainean jarriko du Diputazioa itun eta hitzarmenak lantzerakoan, hala nola aduanetako legeriaren proiektuez, Nafarroarentzat interes berezia duten gaiak ukitzen duten bezainbatean.
69. artikulua. Lege Organiko hau aplikatu eta ulertzerakoan Estatuko Administrazioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean sor daitezkeen desadostasunak, Foru Diputazioaren eta Estatuko Administrazioaren ordezkari kopuru berdinez osaturiko Lankidetzaz Batzorde batek jorratuko ditu, baita, kasuan-kasuan, ebatziko ere, Konstituzio Auzitegiaren eta Justizia Administrazioaren legeria berekia deusetan ukatu gabe.

3. Foru lege baten bidez garatuko da Nafarroako herritarrek Justizia Administrazioan Zinpekoen Epaimahaiaren bitartez parte hartzeko araubidea.
4. Nafarroak eskumen osoa du aginte judizialaren antolamendurako eta lurralde-barrutiak eta hiriburua finkatzeko gaietan; horretarako, epaitegi eta sail berriak sortzeko ahalmena du, baita organo judizial guztiak beharrezko baliabide material, organiko eta pertsonalez hornitzeko ere.
5. Foru lege baten bidez sortuko dira Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen funtzionario kidegoak; gisa berean ezarriko dira haien estatutu juridikoa eta haien zerbitzu harremanaren araubidea ere.
6. Nafarroako Gobernuaren eta Justizia Ministerioaren arteko lankidetzarako beharrezko esparrua ezarriko da, Nafarroako Justizia Administrazioa ordenaz kudeatzeko eta Estatuko eta Europako eremuekin koordinatzeko.
63. artikulua. Nafarroaren eremuan, Nafarroako Foruzaingoa izanen da polizia judiziala ondorio guztietarako. polizia judizialaren lanean ari denean, Aginte Judizialaren zerbitzuan egonen da, lege prozesalek xedatzen duten gisan.

IV. KAPITULUA

Estatuko Administrazioarekiko eta erkidego autonomoekiko harremanak

64. artikulua. Konstituzioaren lehenbiziko xedapen gehigarriaren lehenbiziko leerroaldean eta Lege honen bigarren artikuluan ezarriari jarraikiz, Estatuko Administrazioaren eta Foru Komunitatearen arteko harremanak bakoitzaren ahalmen eta eskumenez den bezainbatean, foru araubidearen izaeraren ariora ezarriko dira eta **Lege honen 36. artikuluan xedatutakarekin bat garatuko dira.**
65. artikulua. Nafarroak erkidego autonomoekin hitzarmenak egin ditzake, beren eskumen osoko gaiak dagozkien zerbitzu berekiak kudeatu eta eskaintzeko. Aipatu hitzarmenek Gorte Nagusiei jakinarazi eta hogeita hamar egunen buruan hartuko dute indarra.

V. KAPITULUA

Hitzarmen eta lankidetzak akordioak komunitate autonomoekin

70. artikulua. 1. Nafarroak komunitate autonomoekin hitzarmenak egin ditzake, beren eskumen osoko gaiei dagozkien zerbitzu berekiak kudeatu eta eskaintzeko. Aipatu hitzarmenek Gorte Nagusiei jakinarazi eta hogeita hamar egunen buruan hartuko dute indarra, non eta haiek epe horretan ez duten erabakitzen hitzarmenak, bere edukia dela eta, lankidetzak akordioetarako hirugarren idazatian aurrikusitako izapideari jarraitu behar diola.
2. Nafarroak Euskal Autonomia Elkartearekin eta gainerako komunitate autonomo mugakideekin hitzarmenak egin ditzake, bere eskumeneko gaiei dagozkien zerbitzu berekiak kudeatu eta eskaintzeko. Hitzarmen horiek Gorte Nagusiei jakinarazi eta hogeita hamar egunen buruan hartuko dute indarra.
3. Gorte Nagusien alde aurreko baimenez, Nafarroak Euskal Autonomia Elkartearekin eta bestelako komunitate autonomoekin lankidetzak akordioak egin ditzake.

V. KAPITULUA

Harremanak Euskadiko Erkidegoarekin eta Frantziako Estatuan sarturik dauden Iparraldeko euskal lurraldeekin

66. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateak eta Euskadiko Erkidegoak beren herritarren garapenerako eta haien ongizate sozial, ekonomiko eta kulturalerako egokien juzgatzen dituzten lotura politikoak izaten ahalko dituzte, bai udalerri mailan bai lurralde mailan, muga bakarra herritarren beren borondatea dela.
 2. Horretarako, erkidego bien artean lankidetzarako hitzarmen eta akordioak egiten ahalko dira bien intereseko arloak garatu eta kudeatzeko; lankidetzarako tresna komunak ezartzeko aukera ere izan daiteke, horrela onartzen badute erkidego bateko eta bertzeko autogobernuerakundeek. Betiere Estatuak errespetatuko du erkidego bien artean lankidetzarako hitzarmen eta akordioak egitea eta, beraz, harreman horiei ez zaie aplikatuko Konstituzioaren 145. artikuluan xedatua.
 3. Etorkizunean Nafarroako Foru Komunitateko eta Euskadiko Erkidegoko herritarrek, beren borondatea adieraziz, askatasunez erabakitzen badute egitura politiko komuna eratzea, negoziazio-prozesu bat ezarriko da erkidego bateko eta bertzeko erakundeen adostasunez, Espainiako Estatuarekin izanen den antolaketa eta harreman politikoetarako esparru berria egituratzeko –horrela behar badu–; nolana ere, erkidego bietako herritarrek berretsi beharko dute esparru berri hori.
67. artikulua. 1. Nafarroako erakundeek lehenetsuna emanen diete Iparraldeko euskal lurraldeekiko harremanei. Hartarako, beharrezko akordio eta itunak sinatzea sustatuko da Pirinioen bi aldeetan kokatutako euskal lurralde eta giza taldeek ahalik eta erarik zabalenean erabili ahal ditzaten Europar Batasunaren esparruan mugaz gaindiko lankidetzarako egungo nahiz etorkizuneko araudiak eskaintzen dituzten aukerak, gisa horretara estutzeko lotura historiko, sozial eta kultural bereziak Nafarroaren eta Frantziako Estatuan kokatutako euskal lurralde eta giza taldeen artean. Horren barnean sartzen da udalerri eta lurralde mailako lankidetzarako tresnak ezartzeko gaitasuna, alde bakoitzeko herritarren borondatea errespetatuz.
 2. Artikulu honetan xedatuaren barnean, Nafarroako Foru Komunitateak lankidetzak organo baten funtzionamendua sustatuko du Frantziako Estatuan dauden euskal lurraldeekin eta Euskadiko Erkidegoarekin, Euskal Herri osoko premia komunei erantzuteko.

VI. KAPITULUA

Harremanak Europarekin eta Nazioartearekin

68. artikulua. 1. Lege honen ondoriozko konpromisoak Europar Batasuneko itunetan jasoko ditu Estatuak, bidezko den gisan, Europar konpromiso horiek aitortu eta begiratu dituztela bermatu beharrez.
2. Europar Batasuneko araudiarekin bat etorritik, Nafarroak zuzeneko ordezkaritza izanen du Europar Batasuneko organoetan. Horretarako, Espainiako Gobernuak behar diren bideak emanen ditu Nafarroako Gobernuak Batasuneko erakundeetako erabakiak hartzeko prozeduretan modu aktiboan parte hartzeko aukera izan dezan, erabaki horiek bere eskumeneko gaiei eragiten badiete.

- Halaberean, Nafarroako erakundeen ordezkariak Estatuak Europar Batasuneko Ministroen Kontseilurako izendatuko dituen ordezkarietzako kide izanen dira, oso-osorik Nafarroaren eskumenekoak diren politika publikoei buruzko gaiak erabiltzen direnean.
3. Nafarroako Gobernuak eta Estatuko Gobernuak behar diren koordinazio sistemak emanen dituzte Batasuneko funtsak prestatu, programatu, banatu eta betearazteko prozesuetan benetan parte hartzeko aukera bermatuta izan dezan Nafarroak.
 4. Nafarroako erakundeen lana izanen da Batasuneko zuzentzarauak txertatzea beren eskumen-eremuan.
 5. Nafar erakundeek Europako Justizia Auzitegira jotzeko aukera izatea bermatuko du Estatuak, haiek zuzenean jotzeko eskubidea Europako araudian aurreikusita ez dagoen guztietan.
 6. Nafarroa hauteskunde barruti bakarra izanen da Europako Parlamentuko hauteskundeetan.
69. artikulua. 1. Nafarroako erakundeek, subsidiaritasun printzipioa oinarritzat hartuta, mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzak bulkatuko dute Europar Batasunaren eremuan, lankidetzak hori baita Europa eraikitze funtsezko tresna, alegia, Europa bat horretako herriak eta eskualdeetako giza taldeak osatzen dituzten herritarren aitormenean oinarritua, kulturaren aberasgarri eta demokraziaren pizgarri.
2. Nafarroak euroeskualde baten sorrera bulkatuko du Europar Batasunaren esparruan. Euroeskualde horretan, Euskal Herria osatzen duten lurralde historiko guztiak sartuko dira, bai eta, hala badagokio, Euskal Herriarekin lotura historiko, sozial, ekonomiko eta kultural garrantzitsuak dituzten hurbileko bertze eskualde batzuk ere.
70. artikulua. 1. Nafarroaren lurraldetik kanpo, nafar erakunde publikoek behar diren lanak eginen dituzte Nafarroako herritarren interesak defendatu eta sustatzeko; horretarako, beren eskumen esparruetan, akordio, hitzarmen eta protokoloak sinatzen ahalko dituzte nazioarteko instituzio eta erakundeekin.
2. Helburu horiek lortzeko, behar diren giza baliabideak eta bitarteko materialak emanen dira Nafarroako Gobernuaren kanpo ekintzarako; beharrezkoak badira, ordezkari-tza-bulegoak eta ordezkariak sortuko dira atzerrian, eta horien estatutua foru lege baten bidez arautuko da.
 3. Nafarroak zuzeneko ordezkariak izaten ahalko du nazioarteko erakundeetan, bereziki hizkuntza, kultura, bake, giza eskubideen defentsa nahiz lankidetzak, garapen iraunkor eta ingurumenarekin ikusteko dutenetan, erakunde horien araubideek kide izateko eta parte hartzeko aukera ematen badute.
71. artikulua. 1. . Estatuko Gobernuak Nafarroako erakunde baimena beharko du, aitzinetik, Lege honetan biltzen diren eskumenak aldatu edo mugatzea dakarten nazioarteko itun edo hitzarmenak sinatzeko.
2. Nafarroako Gobernuak parte hartuko du Estatuko Gobernuak nazioarteko itun eta hitzarmenak lortzeko eginen dituen negoziazioetan, horietan inplikaturik dagoen heinean, bai eta mugen arloko legegintzako proiektuetan ere, Nafarroarentzat interes berezia duten gaiei dagozkienean.

III. TITULUA

ERREFORMA

71. artikulua. 1. Foru araubidearen izaera juridikoa dela eta, Lege Organiko honek aipatzen duen Hobetzea aldaezina da alde bakarrak erabakita.
2. Haren erreforma, nolahi dela ere, bide honi lotuko zaio:
- Ekimena Foru Diputazioari edo Nazioko Gobernuari dagokio.
 - Behar diren negoziazioak egin ondotik, Foru Diputazioak eta Gobernuak, bat etorritik, berrikuntzaren proposamena aurkeztuko dute, eta hura Foru Parlamentura eta Gorte Nagusietara eramanen, onets dezaten, Lege Organiko hau onesterakoan erabili den bide berari jarraikiz.
3. Berrikuntzaren proposamena atzera botatzen bada, hura aurkeztu aitzin indarra zuen araubide juridikoak segituko du indarrean.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

- 1.a Lege Organiko honetan ezarritako araubidea onartzeak ez dakar Nafarroari dagozkiokeen beste eskubide jatorrizko eta historikoei uko egiterik. Horiek ordenamendu juridikoan sartu nahi izanez gero, 71. artikuluan ezarritakoari jarraikiko zaio.
- 2.a Parlamentua foru organo eskuduna izanen da honetarako:
- Konstituzioaren Laugarren Xedapen Iragankorrak aipatzen duen ekimena erabiltzeko.
 - Nafarroa beste Komunitate Autonomo batean sartu izanez gero, handik bereizteko ekimena erabiltzeko.
- 3.a Nafarroako Foru Komunitatea oraingo Foru Diputazioaren eskubide eta betebeharrak orotan subrogatuko da, toki korporazioa den aldetik.

Aipatu Diputazioko eta haren menpeko erakundeetako funtzionarioek eta langileek dituzten edozein maila eta motatako eskubide guztiak errespetatuko dira.

3. Nafarroak betearaziko ditu nazioarteko itun eta hitzarmenak, bere eskurantz eta eskumenei eragiten dien orotan.

72. artikulua. Nafarroak garapen bidean diren herrialdeekiko elkartasun eta lankidetzako politika garatzen ahalko du bere kasa eta, horretarako, beharrezko akordio eta programak ezarriko ditu hartzailerik izanen diren herrialde eta eskualdeekin, baita gobernu kanpoko erakunde eta instituzio publiko eta pribatuekin ere, lankidetzako politikak eraginkorrak izanen direla bermatzeko beharrezkoa denean.

III. TITULUA

ERREFORMA

73. artikulua. 1. Foru araubidearen izaera juridikoa dela eta, Lege Organiko honek aipatzen duen Hobetzea aldaezina da alde bakarrak erabakita.
2. Haren erreforma, betiere, bide honi lotuko zaio:
- Ekimena Foru Parlamentuari dagokio, parlamentarien bortzenaren proposamenez, Nafarroako Gobernuari edo Estatuko Gorte Nagusiei.
 - Proposamena Foru Parlamentuak onetsi beharko du, gehiengo osoz.
 - Proposamena onetsi ondotik, negoziazio-prozesu bat hasiko da nafar erakundearen eta Estatukoaren artean, eta gehienez sei hilabeteko epean bukatu beharko da.
 - Akordioak, halakorik lortzen bada, Foru Parlamentuaren eta Gorte Nagusien onespena beharko du, eta Nafarroako gizartearen behin betiko berrespina Nafarroako Gobernuak berriaz deitutako erreferendumean.
 - Akordiorik lortzen ez bada, hasieran onetsitako proposamena erreferendum bidez Nafarroako gizarteak berresteko bidean emateko eska diezaiotke Foru Parlamentuak Nafarroako Gobernuari.
 - Nafarroako gizarteak proposamena berresten bada, Estatuko erakundeekin negoziazio prozesu berri bati lotuko zaio Nafarroako gizartearen borondate demokratikoa antolamendu juridikoan txertatzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

- 1.a Lege Organiko honetan ezarritako araubidea onartzeak ez dakar Nafarroari dagozkiokeen bertze eskubide jatorrizko eta historikoei uko egitea. Horiek ordenamendu juridikoan sartu nahi izanez gero, **Lege honetan erreformarako ezarritako prozedurari** jarraikiko zaio.
- 2.a Parlamentua foru organo eskuduna izanen da honetarako:
- Konstituzioaren laugarren xedapen iragankorrak aipatzen duen ekimena erabiltzeko.
 - Nafarroa bertze erkidego autonomo batean sartu baldin bada, handik bereizteko ekimena erabiltzeko.
- 3.a Nafarroako Foru Komunitatea oraingo Foru Diputazioaren eskubide eta betebeharrak orotan subrogatuko da, toki korporazioa den aldetik.

Aipatu Diputazioko eta haren menpeko erakundeetako funtzionarioek eta langileek dituzten edozein maila eta edozein motatako eskubide guztiak begiratu dira.

- 1.a 1. 15.2 artikulua aipatzen duen foru legeak indarra hartu bitartean, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak ondoko arauen arioren eginen dira:
- Hauteskundeetarako deia Foru Diputazioak eginen du, Nazioko Gobernuarekin aldez aurretik bat etorritako, eta mila bederatziehun eta lauretan hogeita hiruko otsailaren lehenetik maiatzaren hogeita hamaika bitartean eginen dira.
 - Parlamentua berrogeita hamar parlamentarik osatuko dute eta horiek bozketa unibertsal, libre, berdina, zuzen eta isilpekoaren bidez hautatuko dira, Nafarroako lurralde osoa hartuko duen hauteskunde-barruti bakar batean.
 - Eskainiak banatzeari doakionean, gutxienez, emandako baliozko botuen ehuneko bost lortzen ez duten zerrendak ez dira kontutan hartuko.
 - Xedapen iragankor honetan aurrikusirik ez dagoen orotan, Gorte Nagusietako Diputatuen Kongresuko kideen hautapena arautzen duen legeriak xedatzen duenari jarraikiko zaio. Ez da aplikatzekoa izanen martxoaren 18ko 20/1977 Errege Dekretu Legearen 4. artikulua 2. idatziko a) letran xedatutakoa.
2. Aitzineko idatzian ezarritakoari jarraikiz hautatutako Parlamentuaren osaketa, antolamendua eta jardunbidea Lege Organiko honetan eta Ganbararen Erregelamenduan xedatutakoaren bidez arautuko dira.
- 2.a 25. artikulua aipatzen duen foru legeak indarra hartu bitartean, honako arau hauei jarraikiko zaie:
- Foru Diputazioako lehendakaria izendatzeko Errege Dekretua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasi eta hamabost lanegunen buruan, hark foru diputatuak hautatuko ditu, haien kopurua zazpi baino gutxiago ez eta hamaika baino gehiago ezin izanen delarik. Lehendakariak behar diren titulartasunak banatuko ditu foru diputatuen artean, Foru Komunitatearen eskumeneko gai berekien arioren, eta gehienez bi lehendakariorde hautatu ahal izanen ditu foru diputatuen artean.
 - Foru Diputazioaren araubide juridikoa eta jardunbidea, seigarren xedapen iragankorraren laugarren idaztiak aipatzen duen Erregelamenduan erabakitakoari lotuko zaizkio, hura onesterakoan jarraitutako bide bera erabiliz bere hartan erants litezkeen aldaketekin.
- 3.a Gorte Nagusiek edota Nafarroako Parlamentuak Lege Organiko honek aipatzen dituen xedapenak onesten ez dituzten bitartean, indarra izanen dute beti haiek arautu beharreko gaiak arautzen dituzten Estatuaren lege eta xedapenek, Nafarroari dagozkion ahalmen eta eskumenak deusetan ukatu gabe.
- 4.a Lege Organiko honen arioren Nafarroari dagozkion ahalmen eta eskumenei buruzko zerbitzuak oinarri hauei jarraikiz transferituko zaizkio:
- Aldez aurretik Foru Diputazioarekin akordioa eginda, Nazioko Gobernuak gauzatuko ditu transferentziak eta Errege Dekretu bidez aldarrikatuko dira, eta hori Estatuko eta Nafarroako Aldizkari Ofizialetan aldi berean argitaratuko da.

- 1.a Gorte Nagusiek edota Nafarroako Parlamentuak Lege Organiko honek aipatzen dituen xedapenak onesten ez dituzten bitartean, indarra izanen dute beti haiek arautu beharreko gaiak arautzen dituzten Estatuaren lege eta xedapenek, Nafarroari dagozkion ahalmen eta eskumenak deusetan ukatu gabe.
- 2.a Lege Organiko honen arioren Nafarroari dagozkion ahalmen eta eskumenei buruzko zerbitzuak oinarri hauei jarraikiz transferituko zaizkio:
- Sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak eta Estatuak Gobernuak kide kopuru berak osatutako transferentzien Batzorde Mistoak, aldi batean eta behin betiko, behar diren akordioak ezarriko ditu zerbitzu publikoek jarraituko dutela bermatzeko eta Estatuaren titular duten giza baliabideak eta bitarteko materialak eskualdatzeko; hori eginda, hurrenez hurren Nafarroako Foru Komunitatean sarturik geldituko dira edo haren titulartasun osoa dutela, autogobernu araubidearen arioren. Horri dagokionez, Batzorde Mistoaren aktak eta Estatuaren inbentario eta agiri ofizialak direla-eta egiten diren egiaztagiria aski izanen dira ondasunak kasuan kasuko erregistro ofizialetan titulazioa biltzeko eta inskribatzeko.
- Aipatu Batzorde Misto horrek Nafarroaren eta Estatuaren arteko finantzen gaineko akordioak onetsi eta finantzion joan-etorria erregularizatuko du, hala behar badu.
- Batzorde Mistoan akordiorik ez badago ere, beretutako eskurantzak edo eskumenak erabiltzen ahalko ditu Nafarroak; eskura dituen finantza baliabide eta bitartekoekin erabiltzen ahalko ditu, baina aukera izanen du, gerora, Estatuari atzerapenaren ondorioz sortu diren kalte eta galeren ordaina eskatzeko, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusira jota.

2. Aipatu akordioen indarrez, beroriek aipatzen dituzten ahalmen eta eskumenak osoki eta egiazki bete ahal izateko behar diren material eta giza baliabaideak transferituko zaizkio Nafarroari.
 3. Transferitzen diren zerbitzuei atxikirik egonik, Foru Komunitatearen esku geldituko diren Estatuko Administrazio edota bestelako Administrazio Publikoetako funtzionarioei, transferentzia egiten den unean dagozkien eskubideak errespetatuko zaizkie, baita dagozkien Administrazioak deitzen dituen lekualdaketa-lehiaketetan parte hartzekoa ere beren kidego edo eskalako gainerako kideen baldintza beretan.
 4. Foru Komunitateari ondasun edo eskubideak transferitzea zerga-karga mota guztietatik salbuetsirik egonenda.
Transferitzen diren zerbitzuen bulego publikoetan, lokalen errentamendu kontratuetako titulartasun aldaketak ez dio errentatzaileari kontratua iraungi edo berritzeko eskubiderik emanen.
 5. Nafarroari eskualdatzen zaizkion zerbitzuen finantzaketa egokiari doakionean, haien balorazioa egingen da Estatuko xedapen orokorrei jarraikiz, zuzen nahiz zeharka dagozkion kostuak eta inbertsio-gastuak kontutan hartuz, Foru Komunitateak Estatuaren karga orokorrei egin beharreko ekarpen ekonomikoaren gainean Hitzarmen Ekonomikoak aurrikusitako ondorioak izan ditzan.
 6. Xedapen iragankor honek aipatzen dituen transferentziak gertatzen ez diren bitartean, Estatuko Administrazioak haiei dagozkien zerbitzu publikoak eskaintzen segituko du eta horrek ez du ekarriko Nafarroak berari dagozkion ahalmen eta eskumenen titulartasunari uko egiterik
 7. Baimena ematen zaio Gobernuari, hala behar bada, Estatuaren titulartasuneko mendiak Nafarroari transferitzeko, haien administrazioa eta kudeaketa Foru Diputazioari badagozkio gaur egun, Hitzarmenean finkatzen den gisan eta halabereko baldintzetan.
- 5.a 1. Egungo Foru Parlamentuak Lege Organiko honetan onesten zaizkion ahalmen eta eskumenak bere gain hartuko ditu, 35. artikuluan jasotzen dena salbu.
2. Egungo foru parlamentariak ez dituzte Lege Organiko honetako 13.2 eta 14. artikuluek aipatzen dituzten prerrogatibak izanen, ezta 19. 1 b) artikuluan aurrikusitako legegintza-ekimena erabiltzen ahal ere.
 3. Egungo Foru Parlamentuaren antolakuntza eta jardunbidea indarra duen bere Erregelamenduan ezarritakoari lotuko zaizkio, harik eta Lege Organiko honetan aurrikusitakoa betez hura aldatzen den arte.
Nolanahi ere, Foru Parlamentuaren antolamenduari eta jardunbideari buruz, hemengo manuak berehala aplikatzekoak izanen dira Ganbarako Erregelamenduan geroko garapenik behar izan ezik.
- 6.a 1. Lege Organiko honetako 23.2, 27, 30.2, 31 eta 34. artikuluetako xedapenak ez zaizkie egungo Foru Diputazioako lehendakariari ez eta egungo foru diputatuei ere aplikatuko.

2. Egungo Foru Diputazioari ez zaizkio ezarriko Lege Organiko honetako 28.1 artikuluan zehaztutakoa, ez eta, bestela, 25. artikuluan aurrikusitakoa betez ematen den foru legea ere.
 3. Egungo Foru Diputazioako lehendakariak eta gaineko kideek beren eginkizunak betetzen segituko dute harik eta Diputazio berriaren kideek kargua hartu arte.
 4. Egungo Foru Diputazioaren araubide juridikoa eta jardunbidea bere Barne Araubideari buruz indarra duen behin-behineko Erregelamenduan erabakitakoari lotuko zaizkio, hura onesterakoan jarraitutako bide bera erabiliz bere hartan erants litezkeen aldaketekin.
- 7.a Telebistari dagokionez, Lege Organiko honetako 55. artikuluko 3. idazatia aplikatzearen ondorioz, Estatuak Foru Komunitateari kontzesio araubidean emanen dio Estatuaren titulartasuneko hirugarren kanal baten erabilpena. Hura Nafarroako lurraldean emititzeko sortu behar da, aipatu kontzesioak aurrikusten duen gisan.
- Hirugarren kanal hori benetan abiarazi arte, Espainiako Irrati-Telebistak (R.T.V.E.) Foru Komunitatearen lurraldean duen antolakuntzaren bidez, araubide iragankorra eratuko du, Bigarren Katean (U.H.F.) hemengo programazio berezia emititzeko. Programazio honen kostua oinarritzat hartuko da Xedapen Iragankor honek aipatzen duen kanal berriak jardungo duen lehenengo bi urteetan Foru Komunitateari eman lekiokkeen dirulaguntza zehazteko.

AZKEN XEDAPENA

1. 1.839ko urriaren 25eko Legeak, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduak eta xedapen osagarriek indarrean iraunen dute, Lege Organiko honetan ezarritakoari aurka egiten ez dioten orotan.
2. Lege Organiko honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra.

AZKEN XEDAPENA

1. 1839ko urriaren 25eko Legeak, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduak eta xedapen osagarriek indarrean iraunen dute, Lege Organiko honetan ezarritakoari kontra egiten ez dioten orotan.
2. Lege Organiko honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra.

